



Joseba OLAGARAI  
lehen kazetari,  
orain aktore  
Goenkalen

→ 9

2009ko irailaren 17a | XXIX. urtea | 502. zenbakia

www.ttipi.net

## Herriko bestak

Igantzi, Urrotz eta Anizen

**BERA → 15**

XV. Dantzari Ttiki  
Eguna irailaren 26an

**LEITZA → 29**

Aurrerako Pesta ospa-  
tuko du urriaren 3an

**ZUGARRAMURDI → 35**

Antzerki Taldea  
Katalunian urriaren 31n

**MALERREKA → 39**

Gazteen Laxoa  
Txapelketa hasi da



Baztanen arazo franko izan dituzte azkene-  
ko hilabeteotan zabor organikoaren bilketare-  
kin. Egoerak hobera egin badu ere, herritar  
aunitzek behar ez den edukiontzietara bota-  
tzen du oraindik zaborra.

**ERREPORTAJEA → 4-5**

## Zaborrontziak elkartuta hasi dira emaitzak hobetzen

LANA → 10

**Zalain Condesan 140  
langile kanporatu nahi  
dituzte**

Zuzendaritzak 140  
langile kanporatu eta  
lehengo Hitzarmena  
baztertuz Nafarroako  
Metalgintzako Lan  
Hitzarmena jarri nahi  
du indarrean lantegia  
'bideragarria izateko'.  
Egoera salatzeke mo-  
bilizazioen artean, 160  
langile Gasteizera joan  
ziren irailaren 3an.



Langileek protesta egin zuten Gasteizen irailaren 3an



GIZARTEA → 34

**Artzain 'amerikanoen'  
besta Auritzen**

Igandean, irailak 20,  
500 lagun espero  
dituzte antolatzaileek  
Auritzen.



ELKARRIZKETA → 3

**Nahia Senper-ekin  
arkeologia aurikuntzez**

Urdazubin eta Arala-  
rreko aurikuntzen  
ondotik, orain Berako  
meategietan hasi dira.



# ORDOKI

## altzariak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA





# Iseka

## gazte taldean izena emateko!

egin ISEKA

ASTEBURU ASPERGARRIEI

Erne, gazte!  
Larunbat aspergarriekin nazkatua?  
Gauz asko egin nahi eta ezin?  
Egin iezaiezu ba iseka asteburu aspergarriei. ISEKA gazte taldea gara, eta zurekin pasatu nahi ditugu larunbat arratsaldeak. Denetik izanen da! Jolasak, eztabaidak, ateraldiak, kanpaldiak... Ez lotsatu, eta etorri gurerat!

Irailaren 16 eta 22 artean, delitu Euskara Zerbitzura (948-63 41 25) edo bota izen-emate orria ikastetxeko postontzira. Larunbatero bilduko gara 18:30etik 18:30era, Berako Kultur Etxean.

**INFO** ▶ 948.06.05.16 (Nafarroako Topagunea) [www.iseka.org](http://www.iseka.org)





Duela urtebete eskas sortu zen Larrate enpresa, Nafarroa iparraldeko arkeologia bultzatzeko helburuarekin eta uda honetan aurkikutzak garrantzitsuak egin ditu Urdazubín

eta Aralarren. Orain Berako meategietan ari da. Enpresako bazkideetako bat Nahia Senper beratarra da. Historia ikasketak eginak ditu Gasteizen, eta orain doktoretza tesia

egiten ari da Jaengo unibertsitatean. Ttikitatik gustatu zaion mundu honetaz eta egin berri dituzten aurkikuntzen inguruan solastu gara.

Nahia SENPER | Larrate arkeologia enpresako kidea

# «Gure lana ez da toki batera joan, zulatu eta lau panel paratzea»

TTIPI-TTAPA | BERA

**Inguruan egin dituzuen indusketa lanen artean, nabarmentzekoak Urdazubiko Azkar gazteluan egindakoak dira...**

Bai, Urdazubín gazteluaren perimetroa harrapatu dugu. Bi harresi aurkitu ditugu, bat bertzea baino barrenerago. Hiru zundaketa ere egin ditugu eta Erdi Arokoak eta modernoagoak diren materialak agertu dira.

**Zein ondorio atera dituzue aurkikuntzekin?**

Gaztelua Erdi Aroan sortu zen, baina gerora, gerra batzuetan, Independentzia Gerran, adibidez, berrerabilia izan zen. Hagitz toki estrategikoa da militarri, bista haundiak baititu: Larun, kostaldea...

**Udan bi astez ibili zarete Urdazubín, ezta?**

Bai, eta ea hurrengo urtean egun gehiago egin eta elementu gehiago aurkitzen ditugun. Argi dago gaztelu bat zegoela, harresiak hor daudelako, baina atea, gelak, dorrea... harrapatzea falta zaigu. Orain, bi panel paratuko ditugu monasterioan, jendeak hor gaztelua zegoela jakin dezan.

**Orain zer egingen duzue?**

Laborategi lana egin behar dugu, Nafarroako Gobernua eta Urdazubiko Herriko Etxean memoria aurkezteko.

**Lan haundia izan da?**

Okerrena sasiak kentzea izan da. Bortz egun pa-



TTIPI-TTAPA

Nahia Senper.

satu genituen garbitzen. Garbia egonez gero, aunitzez ere lan gehiago izanen genuke egina.

**Azkar gazteluaren inguruan ez dago informazio aunitzik, ez?**

Ez, dokumentazioa urria da. Artxiboko dokumentuei esker badakigu, 1239.

urtean Teobaldo I Nafarroako Erregeak gaztelua monasterioaren esku utzi zuela. Eta 1244an, Gaskoniako seneskala eta Ingalaterrako Errege Enrique III.aren konfidantzako gizona zen Nicolas de Meulesen aginduetara

## INDUSKETAK URDAZUBÍN

«Urdazubín gazteluaren perimetroa harrapatu dugu. Bi harresi aurkitu ditugu, bat bertzea baino barrenerago. Hiru zundaketa ere egin ditugu eta Erdi Arokoak eta modernoagoak diren materialak agertu dira»

zeuden soldaduek gotorleku hau suntsitu zuten. Sorginekin lotutako kon-daira bat ere bada. Horren arabera, Josepha de Soko sorginak eta bere ahizpek lehenengoaren senargaia gazteluan giltzapetu zutenen aurkako mendeku bezala, gaztelua erre zuten.

**Beran ere ari zarete...**

Bai, Sarraian inguruan. Zilarra ustiatzen zela erran izan da eta zein garaitan ustiatu zen jakin nahi dugu, aunitzetan erromatar garaiko meategiak zirela erran baita.

**Aralarko San Migel santutegian ere aurkikutzak garrantzitsuak egin dituzue...**

Sei gorpu eta bertze hainbat elementu aurkitu ditugu. Hango gizon batek satorrek hezurak ateratzen zituztela erran zigun, eta elizaren buru aldean, 2x2 metroko zuloa egin eta lau gorpu aurkitu genituen: hiru pertsona helduenak eta bat haur batena. 1,5x1,5 metroko bertze zulo bat ere egin genuen nekropoliaren zabalera jakiteko eta, espero ez genuena, bertze bi gorpu agertu ziren. Gorpuak bat bertzearengandik hagitz hurbil daude, eta horrek hilerri haundia dela erran nahi du. Gorpuez gain, txanponak, gerriko baten belarria, zeramika zatiak... topatu ditugu.

**Azken aldian toki aunitzetan ari dira indusketak egiten. Zergatik?**

Badirudi sentsibiltate haundiagoa dagoela, baina oraindik ere falta da. Gure lana ez da toki batera joan, zulatu eta lau panel paratzea, eta hori jakitea nahi dugu. Sozializazio lana hagitz garrantzitsua da guretzat, jendeak gure lana ikustea eta azalpenak aditzea garrantzitsua da. Gainera, lanean gaudela begira egotea gustatzen zaio jendeari, eta udalentzat, berriz, turismoa bultzatzeko bide bat da, diru-iturri bat.

HONDAKINEN KUDEAKETA → BAZTAN

# Sistema berriarekin zaborren bilketa hobetzen hasi da Baztanen

Birziklapena bultzatzeko edukiontzi guztiak elkarrekin paratu dituzte toki jakinetan

Kontzientziario falta edo utzikeria. Bietako bat. Gero eta gehiago kontsumitzen eta birziklatzen bada ere, oraindik ere ez da nahikoa. Eta badirudi jendea oraindik ez dela jabetu hondakinak bereiztea-

ren garrantziaz. Baztanen, erraterako, arazo franko izan dituzte eta dituzte kontu horrekin. Egoerak hobera egin badu ere, herritar aunitzek behar ez den edukiontzi-tzietara botatzen du zaborra.

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Papera eta kartoia, enbaseak, beirak, pilak, etxeko hondakin bereziak, neurri haundiko trasteak... Toki aunitzetan bezala, Baztanen ere bada horiek birziklatzeko modua, edukiontziak badirelako, baina badirudi jendeak ez diola kasu haundiegirik egiten.

Hondakin bilketa bana-

tua dago Baztanen. Papera eta kartoia, enbaseak, etxeko hondakin bereziak, neurri haundiko trasteak eta pilak Emauseko Traperok biltzen dituzte; beiraz Ecovidrio enpresa arduratzen da eta organiko- en kudeaketa, berriz, baztandar batzuen eskuetan dago. Hain zuzen, horretxek eragin du azken aldian baztandar auni-

tzen artean eztabaida.

Obra-hondakinak, azienda hilak, papera eta kartoia, enbaseak, botilak... Denetarik ikusi du Aitor Egui elizondarrak zabor organiko- en edukiontziatan, «aunitzetan kamioiak trabatzeraino».

Azken urteotan zabor organiko- en arduratzen den baztandar horietako bat da Aitor. Zakarrak gaizki bereiztea,

«behar ez dena pagatzea» dela dio: «Aragurenen kamioi bakoitza deskargatzea 360 euro gostatzen da, eta hortaz aparte, bidaia gastuak daude». Hortaz, okerreko hondakin-ekin betetako kamioia ordaintzea alferrik da.

## SALAKETAREN BELDUR

Zaborren bereizketa hain da gaizki egina, Baztango zabor organiko-ak biltzen dituzten Arangurengo zabortegitik dagoeneko abisu bat baino gehiago hartu duela Baztango Udalak: «laugarren abisur-ekin salaketa paratuko zigutela erran ziguten», azaldu digu Santi Alda-ko zinegotziak.

Hondakinak ongi bereizita biltzen ez badituzte, Baztandik eramandako zaborrik ez dutela onartuko ere adierazi omen dute zabortegitik. Horrekin batera, tasak igotzeko arriskua ere ikusten du Eguik. «2008an aunitz igo ziren zaborren tasak, baina horrela segituz gero, gehiago igotzeko arriskua ere badago».

Aldakok, bere alde- tik, gaizki bereizteaga- tik Udalak multak paratuko zituela erranez, oharrak ere bidali zitue- la aipatu digu.

## ZABORRONTZIAK

### ELKARTUTA HOBE

Arazoari kon-

ponbidea emateko, or- dura arte toki diferente- etan zeuden zaborron- tziak leku jakin batzue- tan denak elkarrekin pa- ratzea izan zen propo- satutako irtenbideetako bat. «Nolanahi paratuak ziren, eta jendea iri sobe- ra komodidade eman- ztzaion», dio Eguik. Eta halaxe egin da herri- gehienetan, zaborrontzi guztiak toki berean pa- ratu dira, errazago be- reiziko direlakoan, eta jendearen alferkeria saihesteko. Baina ez guztietan. Oraindik ere Almandoz, Gartzain, Arraioz eta Amaiurren lehengo lekuetan segi- tzen dute zaborrontziak.

Baztango bertze 11 herrietan maiatz eta ekain aldera elkartu zi- tuzten, eta balorazioen bat egiteko oraindik «goizegi» bada ere, «ho- betu» dela iruditu zaio Aitor Eguiri: «uda alde- ra bidaiaren bat gutti- go egin da». Faktura- zioan beherakada izan dela nabaritu du Alda- kok: «birziklatuz gero, ez da horrenbetez be- tetzen kamioia eta gas- tu tikiagoa sortzen da». Gustura dago zinego- tzia aldaketarekin: «edu- kiontzi guztiak toki jakin batean paratuta, arras ongi funtzionatzen du. Lehen jendeak ez zuen birziklatzen, eta orain bai».

Gehiago birziklatze- ko itxaropena ere ba-



du Eguik, baina bere hitzetan, «afera berde dago oraindik». Eta Aldakok mezua bidali die herriarrei: «jendeari, faborez, birziklatzeko eskatuko nioke. Zaborrontziak zerbaitegatik daude».

#### BURUHAUSTE ANDANA

Tokiz aldatzeko neurri honek buruko min bat baino gehiago sortu dizkiela ere aitortu digu Aitorrek: «zalaparta dezente bixtu da, jendeak ez duelako onartu. Niri aunitzek deitu dit baina ez da nire kontua, ni zaborra biltzera baino ez naiz dedikatzen». Aldako ere iduri berekoa da: «jendearen hasierako erreakzioa txarra izan da. Zaborrontziak lehen zeuden tokian utzi izan dituzte zaborrak, 20 metrorra dagoen ontzira ez joateagatik». Kexa aunitz egin omen dira Balleko Etxean, eta batez ere, Elizondan: «herri ttiketian hobeki birziklatzen da, eta Elizondan makurrago», dio zinegotziak. Aitorren arabera, «jendeak ez du ulertzen hondakinak bereiztea zeinen garrantzitsua den, edo ez du ulertu nahi».

#### KONPOSTAJEA

Oraingoz ez dago etxean sortzen den zabor organikoarekin konpostajea egiteko intentziorik Baztanen, baina lorategiatarako hon-

dakinekin konposta egin nahi da, Udalak Iruritan duen lur eremuan.

Santi Aldakok adierazi digunez, «proiektua egina dago». Eguik ho-

#### ZALAPARTA

«Edukiontzia tokiz mugitzeak zalaparta dezente eragin du, jendeak ez du onartu»

#### Aitor EGUI

Baztango zabor organikoaren arduraduna

#### BIRZIKLATZEA

«Jendeari, faborez, birziklatzeko eskatuko nioke»

#### Santi ALDAKO

Baztango zinegotzia

#### DATUA

360

#### EURO

kostatzen zaio Baztango Udaleri hondakin organikoaren kamioi bat Arangurenen deskargatzea. Kopuru horri bidaia gastuak gehitu behar zaizkio

Hondakinak biltzeko ontziak toki jakinetan elkartu dituzte azken hilabeteotan. Konparaziora, Elbetekoa ageri da argazkian.

ren berri eman digu: «Iozarain batzuek eurek ateratzen duten hondakinekin konposta egitea proposatu zuten Udaltxean, adar, belar eta abarrekin, eta hala egitea erabaki da». Etxean sortutako zabor organikoa, ordea, Arangurenara eramaten segituko dute. «Horri buruz hitz egin dugu baina denbora beharko dugu», dio Aldakok.

#### TRANSFERENTZIA PLANTA DONEZTEBEN

Jakina denez, Nafarroan egitekoak diren hiru transferentzia planten artean, bat Donezteben eraikiko da. Planta horretan zaborra banatu eta trinkotu egingen da, eta ondotik, Tuterako El Culebrete biometanizazio plantara eramango. Nola funtzionatu-



ESALDIA

«Herri ttiketian hobeki birziklatzen da, eta Elizondan makurrago»

#### Santi ALDAKO

Baztango zinegotzia

ko duen ez dago zehaztua, eta horrek ere gure herrietan zabor organikoak biltzen dituztenen



ESALDIA

«Jendeak ez du ulertzen hondakinak bereiztea zeinen garrantzitsua den»

#### Aitor EGUI

Zabor organikoaren arduraduna

artean, kezka sortu du: «Horrela segituko dugu ahal den bitartean», dio Eguik.

#### HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETA BAZTANEN



### Egunaren arabera, biltetarako ibilbide diferenteak

Goizean goiz hasten dira lanean Aitor eta bere lankideek. Sei dira eta horietako batzuk 4:30en hasten dira herriz herriko hondakin organikoak biltzen. Astelehen eta ortzegunetan, Elizondan eta Elizondotik Iruña aldera herri guztietan; astearte eta ortziraletan, Elizondan eta hemendik Dantxarinea aldera dauden herrietan; asteazkenetan, Elizondan eta aparteago dauden tokietan –Izpegiko bentan, erraterako–, eta larunbatetan Elizondan eta zabor aunitz sortzen den bertze herriren batean. Sei horietako gainerako langileek herriko karrikak garbitzen dituzte, 7:00etatik aitzinera. Argazkian Aitor Egui ageri da kamioiarekin lanean.





**Nire txanda**  
Koro IRATZOKI

## Ttikititu beharko dugu

**T**titikitu beharko dugu hobeki bizitzeko». Harritu nintzen hau irakurtzean, usaian egiten duguna kontrakoa baita: kotxe azkarrena/ederrena erosi, ahal bezain bat bidaiatu, armairua arropaz lepo kontu, frigorifiko a ongi hornitu, sortzen zaizkigun behar guztiak ase... dirua izanik horrela jokatu dugu. Eta orain diote oparotasun hau moztu behar dugula. Dirua izan ala ez izan. Aldatu beharko dugula bizitza mota hau. Eta zergatik ba aldatu? Ez ote dut nahi dutena egiten ahal nere diruarekin? Ezetz diote ba. Ezin dugula gastatzen/kontsumitzen/esplotatzen/depredatzen/hondatzen segitu. Gure planetarendako ezin jasana delako. Horrela segituz lurrak porrot eginen duelako. Hau ez dute denek sinisten. Nik bai. Eta ttikitzen hasi beharko dudala pentsatzen ari naiz. Zuek zer diozue?

**Dirua izan ala ez izan. Aldatu beharko dugula bizitza mota hau. Eta zergatik ba aldatu?**

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Harriek solas eginen balute

**U**da garaian, berorik handienez, lurra zulatzen eta harriak garbitzen ari dira gure inguruan azken urteetan. Ez, ez naiz N-121Ako errepideko langileetaz ari. Urdazubiko Azkar gazteluan, Amairuko gazteluan edota Lesakako Agiñako kaxkoan indusketa lanetan ari diren arkeologoak dira, lurperatutako aztarnak, oroimenetik ere borratutako arbasoen ondarea azaleratzen.

## Nabarmentzekoak



**Antonio ALUSTIZA**  
Aresoko artzaina

Hamargarren aldiz (seigarrena segidan) irabazi du Uharte-Arakilgo Artzain Zakur txapelketa. Azkeneko lauak Ttiki zakurrarekin lortu ditu. Orain Euskal Herrikoan aterako dira.



**Fernando ETXEGARAI**  
Berako kirolaria

Sei aldiz, sei. Euskal Herriko koxkor biltze txapeladun suertatu zen seigarren aldiz Leitzan irailaren 6an. Proba 6 minututik behera egin duen kirolari bakarrak ez zuen marka hobetu.



**Miguel Mari URRUTIA**  
Erremontelari saldiastarra

Casino Kursaal buruz buruko erremonte txapelketa bigarren urtez segidan irabazi du. Final estuan 35-33 irabaziz Zuberi II. ari. 26 urterekin onenen artean dago Urrutia.

**Aztera begira → 1996.09.12 / TTIPI-TTAPA 189. zbk**



### TTIPI-TTAPAK estreinatu du bere edizio elektronikoa

Internet kontu berria zen duela 13 urte, TTIPI-TTAPAK bere edizio elektronikoa estreinatu zuenean. Izan ere, Euskal Herriko komunikabideen artean bere edukia sarean sarean zintzilatu zuen lehena izan zen aldizkari hau. 1996ko irailako aldizkariak portadan zioenez, "hamabostero paperean eta mundu osoko ordenagailuetan irakurtzeko aukera" izan zen eta "Internet-en bitartez gure herrietako berriak mundu osoan irakur daitezke". Informatzeko ohiturak aldatuko zirela ere iragarri zuen erreportajeak.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andutzeta, 12 • 31760 ETXALAR  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sai-zar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Maite Oteiza, Jaione Obandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitzu, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Zugararmurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2009ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....36€	Ipar Euskal Herria	.....54€	Amerika eta Australia	.....120€
Espainia	.....36€	Europa	.....54€	Baztan, Urdazubi, Malerrek eta Leitzu	.....30€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Euskal Artzain Besta igandean Auritzen

Laura IGANTZI

**A**urten Ameriketara joandako euskal artzainak Auritzen daukate beraien hitzordua. Dagoeneko besta hau ospartzen den laugarren urtea da eta urtero zonalde batean antolatu dugu bertako artzainei hurbiltzeko aukera emateko. Lesaka, Aldude, Elizondo, Auritz...Eskerrak festa antolatzen musutruk lagundu duzuen guztiei, eta bereziki aurtan joan zaigun Jesus Goldaraz Doneztebeko apez euskaltzale jatorrari. Urtetik urtera artzain gehiago baina sentimendu berdinak. Elkartasuna, bizipenak kontatze-ko gogoia, esker ona...

«Beraien gaztarora bueltatuko dira eta kaskabelak, koioteak, bertsoak, andregaien kartak... izanen dituzte ahotan»

begi guztietan holako dizdira bat, ilusioa, emozioa... eta ni neu horren parte naizela sentitzean sortzen zaidan zirrara ez da mundu honetan dagoen diru guztiarekin ordaintzen. Alde batetik guzti hau nere aitarengatik hasi nuela pentsatzean, estomakan korapilo bat jartzen zait, lehenengo festa baina egun batzuk lehenago zendu zelako. Orduan behera etorri beharrean inoiz baino indar gehiagorekin ekin nion lanari, nere aitak hori eta gehiago merezi zuelako. Bere funeralean herri guztietatiako artzainak ikusi nituenean jakin nuen nere esfortzu guztiak merezi zuela. Beraien arteko katea bezalako bat sortua zela konturatu nintzen eta katea hori indartzen saiatuko nintzela. Barkatu sobera sentimentala jarri baldin banaiz, baina sentimendu hau, oroitzapen hauek urtetik urtera errepikatzen zaizkit eta festa hau antolatzean sortzen zaidan sentimendu gazi-gozoa adierazteko baliagarria da. Bertze aldetik, zergatik antolatu holako festa bat? Nik argi dut gure artzainek herri honen historiaren zati bat idatzi dutela. Hemen eskasi handia zegoenean hain lurralde ezezagunara joan ziren; bertze hizkuntza, bertze kultura... bakardadean, egunak joan eta egunak etorri zakur baten laguntzaz milaka ardi zai. Langileak, hitza betetzen zuten gizonak, jatorrak...gure herrialdeko "enbajadorerik" onenak. Oraindik ezauna da Ameriketara euskal artzainek utzitako izen ona. Gainera irabazitako diruarekin baserriak moldatau, familien zorrak kitatu, makinaria berria ekarri... gure herriendako injekzio ekonomiko ikaragarria. Ez dute ba guttiago egin dutenek omenaldirik jaso? Ez dute gure artzainek guttiago merezi!! Horregatik Auritzen elkartuko gara, eta egun batez gure guraso, aitatxi, amatxik beraien gaztarora bueltatuko dira eta kaskabelak, koioteak, barkardean jarritako bertsoak, andregaien kartak... ibiliko dituzte ahotan. Beraiek ahotan eta nik betirako nere bihotzean. Ohore zuri, Euskal Artzaina.

### Pentsatzea ez da arazoa, gaur egun dogma da arazoa

Juainas PAUL ARZAK

**P**entsatzea ez da arazoa. Denok, etengabe, hau dela eta hura izan daitekeela, giza adimenaren beharra dugu. Nahitaezkoa da. Ahula, batzuetan, sendoa gutxitan. Hori bai, buru beza-inbat aburu, abiatzen zaigu arazoa.

Taldeka bizi gara, salbuespenak salbuespen. Multzoak indartzen gaitu eta bere beharra dugu. Hor-tik datorkigu justifikazioa. Familia dela, herria, aberria, alderdia edo eliza...gure burua jendez inguratuturik bizi dugu. Giza ezaugarria den heinean, kexa modurik ez. Baina, arrimura, pentsamendu, iritzi, sinismen eta aukerak soiltzeko, bakartzeko joerari irekitzen diogu atea. Okerrago. Pentsamendua zuzena ala traketsa den bereizteko, taldearen indarra erabiltzen dugu, erabakigarria bihurtzen dugu, eta horrek eramaten digula klase guztietako borroketara.

Guk, gurea taldearekin indarturik, egia "berdaderoa" nahi dugu. Horrela dela sinisteko bidea hartu dugu eta, horretatik, dogma bihurtzen dugu. Gure baieztapena ezin da zalantzan jarri, egia ziurra da eta, horregatik, aurka dagoena etsai gaiztoa besterik ez daiteke izan. Biziaren maila guztietan.

Familia urratzeko motiboa izan daiteke –ezagutuko duzu kasuren bat baino gehiago!–, aldameneko herrien arteko borroka ergelen kausa izan ohi da –baietz?–, alderdikerien gakoa dugu, eta, sinismenen munduan, zer esan?

Erlizioz jantzi dezakegu: Ala, Xiva, Kristo eta beste hainbeste jaungoikoen artean nola hautatu? Kulturaz?, Ohituraz?, Jatorriz? Beti gurea(k) benetako bakarra(k).

Politikaz: ezker, eskuin, zentroa,... gorria, beltza edo zuria. Aberriaz. Euskadi, Espainia, internazionalismoa...

Beti ere gogorkerietan aritzeko aukera ematen dugu: familia, herria, aberria, politika eta sinismen izenean akabatu, bortxatu, xehatu, ukatu...deza-kegu. "Gurea" baita egia. Diktadura ala demokrazia? Dogma eza. Historian zehar dogma izan dugu arazoa. Gaur egun *dogma dugu arazoa*.

«Pentsamendua zuzena ala traketsa den bereizteko, taldearen indarra erabiltzen dugu, erabakigarria bihurtzen dugu, eta horrek eramaten digula klase guztietako borroketara»

**Irakurleak mintzo****Eskerrik asko  
lagun dutenei**[Ulibeltzak Ekartea](#)  
[SUNBILLA](#)

Ulibeltzak Elkartek eskertu nahi dizue 2009ko Sunbillako bestetan laguntza eman duzuen guztiei: Maria Jesus Harategia, Marisol denda, Botika, Ariztiga-in kanpina, Ruiz denda, Kontxa gasolindegia, Itturburu Ostataua, Sasoi Eskabazioak, Lizun Gaztandegia, Renault, Oreberri Okindegia eta Sunbillako Udala.

Horrez gain, eskerrak bestetan izan diren ekitaldietan parte hartu nola lagundu duten guztiei.

**Bota bertsoa**

Jon ELIZETXE (Gartzain)

**Golf zelaia Lekarozen?**

Aberatsen ametsa  
turisten erreinu  
museoen Edena  
oporren eremu  
espekulatzailen  
eta porren amu  
kanpokoentzat zeru  
guretzat infernu  
Baztan salgai legoke  
utziko bagenu.

Iruñera lanera  
lanik badaukagu  
gero hiper dendetan  
erosiko dugu  
heldu da progresoa  
bedeinkatuak gu  
mantso-mantso herriak  
hiltzen doazkigu  
golfean jolastuta  
ahaztuko al zaigu?

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

Posta: **Andutzeta, 12 31760 ETXALAR**

Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK**  
zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**  
Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde


Zure laguntza eskertzeko,  
motxila eder hau  
izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua  
aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako  
Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu  
TTIPI-TTAPARA 2009ko abenduaren 30a  
baino lehen.

geure bezeroek  
aukeratutako  
proiektua **can**



### Prentsatik bildutakoak



«Soinu-ingurunea bera ere aldatu egin da (...) Beste sakone-  
ra bat zuen lehengo entzuteko moduak (...)  
Soinu norgehiago-ka moduko bat dago,  
XX. mendeko ezaugarria da lehia hori; eta  
baditu ondorio sozialak: ez gintuzke harri-  
tu behar arazo politikoak konpontzeko  
daukagun zailtasunak. Ez badakigu ent-  
zuten ez dakigu ulertzen».

«Ez dut sobera uda librea izan. Halere,  
ekainean hiru aste eduki nituen deskan-  
tsatzeko, nahikoa azken urteotan ohitua  
nagoenarekin konparatuz. Hori bai,  
Mundialean egon garen taldeko hirurak  
-Crowley, Agirrezabalaga eta bera- has-  
teko gogo haundiarekin geunden. Taldea  
hain berritua egoteak ilusio haundia egiten  
digu».

**Xabi ERKIZIA**  
Lesakako musikaria  
ARGIA, 2009.09.06

**Niko MINDEGIA**  
Eskubaloj jokalaria  
D. NAVARRA, 2009.09.02

### 11 galdera labur

**TTIPI-TTAPA Telebistan hasi zinen. Zein oroitzapen duzu?**

Ikaragarri ona. Nire eskola izan zen bortz urtez. Aunitz ikasi nuen eta lagun onak egin nituen.

**ETBn hainbat saiotan ikusi zaitugu. Zeinetan gusturago?**

*Horrelakoa da bizitzako errepor-  
tari lanak bete ninduen gehien,  
baina Betizun hagitz ongi pasatu  
nuen. Denek eman didate zerbait.*

**Zein da zure Goenkaleko pertsonajea?**

Aitor izanen naiz, Arraldeko alka-  
te berriaren semea. Irekia, bizia,  
pijoa eta neskazalea.

**Badu zure antzik pertsonajeak?**

Gauza gehienez bai, nik sor-  
tuko dudan per-  
tsonajea izanen  
baita Ai-



**Joseba OLAGARAI → Etxalarko gaztea**

tor. Bertze batzuetan batere ez.  
**Zer moduz moldatzen zara bertze aktoreekin?**

Batzuk lehenagotik ezagutzen ni-  
tuen eta bertze batzuk orain eza-  
gutu ditut. Gehiago edo guttiago,  
denekin daukat harreman ona.

**Jendeak kalean dexente ezagutu-  
tuko zaitu orain...**

Hori da telebistatik guttien gusta-  
tzen zaidana. Jendeak normalki  
gauza onak erraten dizkizu baina  
ergel franko ere bada.

**Trikitalari, bertsolari, dantzari...  
Euskaldun prototipoa zara?**

Ez, inondik ere. Ez dut prototipo-  
tan sinisten. Euskaldunak hagitz  
anitzak gara.

**Irakasle ere izan nahi duzu?**

Magisteritza ikasten ari naiz eta  
ez dut baztertzeko irakasle lana.

**Amets bat?**

Momentua biziz antzinerara egitea.

**Liburu bat?**

Aulki-jokoa., Uxue Alberdiren.

**Aurreratuko diguzu Goenkale-  
leko zerbait?**

Inork espero ez duen nor-  
bait hilko da. Ez dut erranen  
nor, ezta nola ere.

**ITUREN** *Zure ametsa biltzen*

**30 ETXEBIZITZA LIBRE ETA VPO-AK** **VIVIENDAS LIBRES Y V.P.O.**

*Elgorriagako baimuetxe berriaren ondoan*

**LINDUTX BAZTAN, S.L.** **Elgorriagako Baimuetxe Berria** **Hogitxeko Enkainak, S.L.**

Tel. 948 580 344  
[www.lindutx.com](http://www.lindutx.com)

*Zure irudia, zure bizitza. Te usatu, te eratu*

Informa zaituz Baztan eta Ultzamako promozioetat

## GIZARTEA

LANA → ZALAINGO CONDESA LANTEGIA

# 24 orduko lanuzteaz gain, protesta egin dute Zalaingo langileek Gasteizen

160 langile inguru Gasteizen izan dira protestan

## TTIPI-TTAPA | BERA

Aspaldian kezka baino ez da nagusi Zalaingo Condesako langileen artean: lantegia itxeko eta langileak kaleratzeko beldurra somatzen dira. Maia-tzaren 25az geroztik erregulazioan daude eta urte akabera bitarte horrela egonen direla iragarria dago. Baina etorkizunera begira ere beltz dago kontua, 140 langile kaleratzeko berzte espediente bat paratu baitu mahaigainean. Hori onartzen ez badute, zuzendaritzak konkurtso legera joko duela ere adierazi omen du. Eta hori «xantaia-tzat» jo dute langileek.

Kaleratzeko asmo hori, uztailaren 9an jakinarazi zuen zuzendaritzak. Plan horren arabera, Zalaingo lantegia bideragarria izateko aukera bakarra, 140 la-



ARGAZKIA: JULEN MITXELTORENA

Zalaingo langileak Gasteizko Ama Zuriaren Plazan egindako elkarretaratzean.

rrekoa egin zituzten, eta horrez gain, manifestazioa ere bai, Condesako bulegoen aitzinetik pasatuz. Iribecampos - Uribarren Zalaingo ez itxi, despidorik ez zioen pankartarekin ibili ziren. Iribecampos-Uribarren familia Condesaren jabea da. Eta hain zuzen, Juan Jose Iribecampos Condesako zuzendari nagusiak 2003an enpresari eskuldun onenei ematen zaien saria jaso zuen.

## MOBILIZAZIOEN ERANTZUN ONA

Sindikatu guztiek aho batez onartutako ekimenak parte-hartze zabala izan zuen, 160 bat langile joan baitziren Gasteizera: hiru autobus beteta eta autoz ere jendea joan zen.

Zuzendaritzak aitzieneratu zuenez, espediente berri hau irailaren lehenean aurkeztekoa zuen Nafarroako Gobernu Lan Sailean, baina lerro hauek idazterakoan oraindik ez zuen aurkeztua.

Gasteizko Ama Zuriaren Plazan elkarretaratzea eta prentsau-

gun kaleratzea eta Zalaingo Transformadoseko Hitzarmena baztertu eta Nafarroako Metal-

gintzako Hitzarmena indarrean paratzea dira. Langileen kalterako, bi hitzarmen horietan

baldintzak diferentek dira.

Horrek ezinegona sortu du langileen artean, eta egoera salatzeko hainbat mobilizazio egiten ari dira. Azkena irailaren 3an egin zutena izan da: 24 orduko lanuztea egin zuten, eta horrekin batera, Gasteizera joan ziren protesta egitera.

DATUA

160

**LANGILE**  
joan ziren irailaren 3an  
Gasteizera  
protesta egitera.

DATUA

140

**LANGILE**  
kaleratu nahi ditu  
Condesako  
zuzendaritzak Zalainen.

**ZOANSA**

SEAT  
VW  
HYUNDAI  
Audi

**MARKA GUZTIEK KONPONKETA**  
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea  
LESAKA (sarrera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

JAKONE-GOZOTEKIA

Albora 19 BERA 948020788

BAR  
BOTXO  
OSTATUA

Zalain • BERA • 948 630 052

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

OSPAKIZUNAK → GURE TXOKOAK ANTOLATUTA

# Dantzari Ttiki Eguna egingen da irailaren 26an XV. aldiz

Gure Txokoa  
Dantza Taldeak  
bloga sortu du

TTIPI-TTAPA | BERA

Gure Txokoa Dantza Taldeak antolatuta, Dantzari Ttiki Eguna egingen da irailaren 26an. XV. edizioa izanen da aurten goa, eta goiz goizetik hasiko dira ekitaldiak:

- 10:30: Taldeei harrera egin eta banaketa auzoetan.
- 11:00: Kalejira (ibilbidean gosaria emanen zaie)
- 12.45: Iamotenean elkartuko dira talde guztiak eta elkarrekin Alzaterara abiatuko dira. Han, talde guztiek Agintariena dantzatuko dute eta herrikoek talde bakoitzari Agurra eskaini ondotik, jaialdia hasiko da.
- 13.30: Umeen banaketa etxeetan bazkaltzeko.
- 17:00: Haurrentzako jokoa pilotalekuan.
- 18:00: Denak etxera!

Eguraldi txarra egingez gero, harrera egin ondotik, Alzateko frontoira joanen dira haur guztiak eta han gosalduko dute eta 12.00etan han egingen da jaialdia. Hortik aitzinerako ekitaldietan ez da aldaketarik izanen.

Aurtengo hiru gonbidatuak Gipuzkoatik datoz: Allur Taldea (Ibarra), Korosti Taldea (Legazpi) eta Iztueta Taldea (Zaldibia) dira.

## BERRIAK INTERNETEN

Gure Txokoa Dantza Taldeak Interneterako saltoa ere eman du. Taldeari buruzko webgunea egitea da helburua, baina bitartean, blog-a paratu dute martxan. Dantza Taldearen inguruko informazioa bildu eta hedatzeko sortu dute: [guretxokoadantza.blogspot.com](http://guretxokoadantza.blogspot.com).

## Kirol Eguna

Kirol Egunaren V. edizioa egingen da larunbatean, irailak 19. Goizean nahi duenak hainbat kirolekin trebatzeko aukera izanen du: pilates, aerobic, ciclo indoor, tai chi, pilota, kenpo kai edo herri kirolak, bertzeak bertze. Mari Mendi taldeak ere bideo emanaldia eskainiko du.

Errekalden egingen den bazkariaren ondotik, Patxi Vilaren bideo emanaldia izanen da kiroldegian eta Matzadan haureta gazteentzat atletismo proba konbinatua egingen da.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

## Gure Txokoa herri kirolekin

Lan txukuna egin du Gure Txokoa Nafarroako Herriz Herri Txapelketan. Lehen eta bigarren konbinatuan ibili dira eta batean zein bertean bigarren postuak eskuratu ditu. Zorionak, beraz, eta segi horrela!



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

## Gure Txokoa irabazi du Jon Irazokiren XIV. Memorialean

Joan den urtean bezala, aurtengoa ere etxeko taldea izan da txapelketa. Abuztuaren 29an Jon Irazoki zenaren omenez jokatu zen memorialean Gure Txokoa izan zen nagusi. Matzadan futbol-zelaiak hartu zuen txapelketaren XIV. edizioa eta eskualdeko talde nagusietako hiru aritu ziren: Doneztebe, Gure Txokoa eta Beti Gazte (Lesaka). Lehenbiziko partiduan, Doneztebe eta Gure Txokoa aritu ziren. Markagailua husna zela akautu zuten partida, eta hortaz, penaltietan erabaki behar izan zuten azken emaitza. Azkenean, 5-4 nagusitu ziren beratarak. Bigarren norgehiagokan Doneztebe eta Beti Gazte jokatu zuten, eta honetan Lesakara joan zen garaipena, 0-2ko emaitzarekin. Hirugarren partiduan, azkenik, Gure Txokoa eta Beti Gazte lehiatu ziren, eta etxeko taldearentzat izan zen garaipena, 2-0 irabazi baitzuten Berakoek. Hiru partidak jokatu, Gure Txokoa izan da aurtengo txapelketa, Beti Gazte bigarren gelditu da eta Doneztebe hirugarren.

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
Ungardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**okaNe**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
Ttapi & Ttapa  
Tel/Fax: 948 630 018  
Kanttonberri 12 • BERA

# LESAKA

ONDAREA → INDUSKETA ARGEOLGIKOAK

## Burdin Aroko harresia topatu du arkeologo talde batek Agiñako kaxkoan

Suharrizko tresnak ere topatu dituzte Saltus Vasconum taldeko kideek

**Aitor AROTZENA** | LESAKA

Agiña kaskoko indusketa lanak bukatutzat eman zituzten abuztuaren 31n. Indusketa hauek, Saltus Vasconum erakundeko Francisco Valle de Tarazaga eta Pedro Arresek zuzendutako arkeologo talde bateko egin dituzten abuztuko azken bi astetan. Nafarroa, Ingalaterra eta Australiako arkeologo eta boluntarioek osatzen dute taldea. 2007an prospekzio geofisiko bat egin zen, kasko honetako lurazpian egon zitekeen egitura identifikatua zuten. Urte berean, kata ezberdinak ireki ziren eta honela, harrizko paretaren eta zulo baten presentzia ikusi zuten. Aurten egin diren lanek baieztatu egin dute Burdin Aroko eremu harresitu bat dagoela bertan, harresi batekin perimetro osoan zehar eta 2 metroko sakonera duen zulo edo olibi batekin. Aurkitutako elementuen artean, suharrizko tresnak aurkitu di-

ra, Burdin Aroko oraindik erabiltzen zirenak.

Elementu garrantzitsuenen artean 5 metroko altuera duen harresia eta hobi sakon bat daude. Francisco Valle de Tarazaga arkeologoaren arabera, "Agiña inguruko biztanleek eraiki zuten seguruenik harresi hori lurraldearen kontrola izateko, puntu altu bat delako eta eskualdea ongi bistarazten delako hortik. Defentsa ahaltsua zeukaten biztanleen segurtasunerako, erasoan aur-

GIZARTEA → BIZIKLETAREN ERABILERA BULTZATUZ

## Mugikortasunaren Astea ospatuko da irailaren 16tik 22ra

**A.A.** | LESAKA

Irailaren 16tik 22ra Mugikortasun Astea ospatuko da. Asteazkenean, irailaren 16an, 18:00etan, "Lesaka mugitzen da, bizikletaz" hitzaldia eskainiko da mugikortasun jasangarriaren inguruko inizatibaren aurkezpena eta eztabaidarekin. Lesaka Nafarroako bizikleta-bideen sarean solasaldia eskainiko du Oraintzeko Eneko Astigarragak; erdi-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Australiako Emma Bonthorne eta Ingalaterrako Steve Boscott eta Paul Rowland arkeologoen parte hartu dute indusketa lanetan

rean defendatzeko. Haz ere egunez egun inguruko esplotazio txikiagoetan biziko ziren eta eremu hau behin behineko defentsa tokia izango litzateke". Arkeologo taldeak azaldu zuen nola "leku parega-

bean dagoen Agiña kaskoa. Bertatik erromatarren ezarmendu garrantzitsuenak ikusi daitezke: Arditurriko meak, Oia-soko portua Irunen edo Baionan kokatzen zen Lapurdum erromatarren ezarmendua".

Patxi Sarobe "Kirru" lesakarra taldeko kidea da eta lanetan parte hartu du. Saltus Vasconum erakundeak hitzaldia antolatu eta panel informatiboak eta esku-orri informatiboak ere banatuko ditu laister.

ka eta Erdiko Errotako kanala garbituko dira. 18:00etan Patxi Vilak txirrindularitzaren inguruan gidaturiko dokumentala aurkeztuko da.

Irailaren 20an, igandean, Lesakako Mendi Bizikleta ibilaldiaren bigarren edizioa antolatu du Beti Gaztek. Bi ibilbide izanen dira aurrerant, 42 eta 25 kilometrokoak. Izena ematea 8:30etik 9:30era egiten ahal da. Beti Gazteko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek 12 euro. Haurrentzako ginkana ere izanen da herrian.

Irailaren 22an, Alkaiagako Geltokitik Villanuevara ibilaldia egingen da trenbidetik, 16:30ean.

### FLASH

#### Estresa eta depresioa hizpide

«Estresa eta depresioa, XXI. mendeko etsaiak» solasaldia eskainiko du ANASAPS-Dizdira elkarteak irailaren 17an, 18:00etan udalaren erabilera anitzeko aretoan, Antoiu 27-2an.

#### Kiroldegiko izen-ematea

Kiroldegiko aktibitatean izen-emateko aukera izanen dute abonatuak irailaren 21, 22 eta 23an. Lekurik libre geldituko balitz, ez abonatuak irailaren 25 eta 26an izanen dute aukera, izenemate ordinarekin arabera.

Etzeko Ardi Gazta

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA

Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 882

**BOZZ-AID**

LAGANBERRIA

0948 61 71 98 0338 • LESAKA

**IRU BIDE**  
Energia - Auzoak

Barri/151, 311 Lesaka  
Tel: 948 637 127

**XATURETXEA**

**ZAJA**  
JATETXEA

T: 948 637 260 - LESAKA

OSPAKIZUNAK → AISIALDIA

## Euskal Herriko narratzaileen besta irailaren 27an Etxalarren

### 25 ipuin kontalari bilduko dira

**Joseba eta Nerea** | ETXALAR

*Bazen behin Etxalarren...* Horrelaxe hasiko dira irailaren 27an Euskal Herriko Kontalarien Elkarteak antolatu duen egun bereziko ipuin gehienak. Zazpi lurraldeetako 25 ipuin kontalari bilduko dira, Isabel Millet antolatzaileak aitzineratu digunez, «Koldo Ametztoi, Jose Mari Carrere, Lupe Lekuona, Kontu Kantoi eta *A la luz de las velas* taldeak», berteak bertze.

Laugarren aldia izanen da aurtengoa. Aitzineko urteetan Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban ospatu dute eta aurten Nafarroari tokatu zitzaioenez, gure herrira ekarri dute, Isabel Millet ipuin-kontalariak proposatuta. Lau gune paratuko dituzte herri osoan, eta horietan kontalariak haur nahiz gazteentzako ipuinak kontatuko dituzte.

11:30ean hasiko da eguna Patxiku Irisarri alkatearen agurrarekin. Ondotik, 12:00etatik 14:00etara, Eskola Zaharretan, Kultur Etxeko arkupean, Elizako arkupean eta Iñarretako gurutzean banatuko dira kontalariak. «Adin guztietako jendea animatzen du-

gu, egun berezia, desberdina eta goxoa izanen baita», dio Milletek.

### Bestak Urritzokietan

Igande honetan, irailak 20, ospatuko dira Urritzokietako bestak. Sainduneko Bordako zubian bazkaria egingen dute 70

bat lagunek. Aitzinetik, meza izanen da ermitan eta trikitilariak karrikaz karrika ibiliko dira. Arratsaldean partxis eta mus txapelketak eta hainbat jolas izanen dira. Irune eta Itxaso Elizagoien trikitilariak arratsaldea alaituko dute eta arratsean afaria egingen da.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

### Akabatu dira oporrak ikasleentzat!

A gripea dela eta, bi txandatan hasi dute aurtengo ikasturtea Landagain eskolan. Irailaren 3an Haur Hezkuntzakoak eta Lehenengo Ziklokoak sartu ziren eskolan eta beranduago, irailaren 9an, gainontzekoak. 3 urteko bederatzik ikasleek hasi dute ikasturtea: Ekiñe Arozenak, Unai Etcheverriak, Luken eta Unax Etxartek, Alazne eta Naroa Irigoienek, Lander Lasagak, Ekaitz Maizek eta Kepa Telletxeak. Joxe Mari Remiro beratarra izanen da zuzendaria eta guztira 68 ikasle daude.



**Pertsonaia**

Pello APEZETXEA

### Azarorako, bi liburu Etxalarri buruzkoak

Pello Apezetxea erretoarek urte franko pasatu ditu artxiboetan herriko kontuei buruzko informazioa biltzen. Azken urte hauetan liburu forma hartzeko adina material bildu duenez, herritarren laguntza proposatu du bi liburuak argitaratzen laguntzeko. *Etxalarko etxeen izenak* eta *Etxalarko Historia* dute izena 2 liburuek eta CANeko zuk aukeratu, zuk erabaki sistemaren bidez finantzatu nahi litzuke argitalpenak. Beraz, proiektu hori aukeraturaz gero, Pello Apezetxearen liburuak argitaratzen lagunduko duzue. Orain arte egin dituenak bezala, liburu hauek ere aski interesgarriak izanen dira, dudarik gabe.

**sarbe**  
geologia olinpiko

27 de entegara 25 bajo  
4700 bera (navarra) 1948 63 08 99  
www.sarbe.net

MERTZERIA  
*Leño*  
LENTZERIA

Tel. 948 627 914  
Berriz Plaza, 10. LESAKA

948 631 218  
Kanttonberri 1, BERA  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

# KATEA-BIKE

**ANTZUZELAI**  
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 + Fax: 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com

Antzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tuminiak, entzikak, moldurak, zokoak, hilarriak, marrazkiak

# ARANTZA

UDALA → HERRI-KONTSULTA

## Medikuaren etxeko pisua errentan ematearen aldeko 48 boto izan dira

Iritzi bilketa parte-hartzailea izan da

**Nerea ALTZURI** | ARANTZA

Abuztua gibelean gelditu bazaigu ere, eta etxez etxe udal informazioa eskura badugu ere, sekula ez da sobera zenbait informazio oroitaraztea. Medikua etxeari erabilpen bat eman nahian, iritzia emateko epe bat jarri zuen Udalak eta parte-hartze haundiarekin gehiengoak errentan ematearen aldeko iritzia eman du (48 boto); ezezko boto bat bildu da, eta bertze hiru erabilpen ere aipatu dira: landa-etxe bat, gaztetxea eta adineko jendearentzat egoitza.

Bertzalde, oroitu, herrian babes ofizialeko pisu bat erosteko interesa duen orok Herriko Etxean izena eman beharko duela aste honetan.

### 50 ikasle eskolan

Gutzira 50 ikaslek eta 8 irakaslek ikasturte berria abiatu dute. Haur Hezkuntzako 21 ikasle, Lehen Hezkuntzako 23 eta DBHko sei lanean hasi dira. Ikasturte honetara bortz maixu berri ere batu dira. Jose Ramon Amoros, Ixabel Danborriena eta Juana Larralde gain, Aintzane Iturria aranztarra, Ainhoa Mutuberria zubietarra, Joxe Mari Goia eta Lurdes Larzabal igantziarrak eta Jorge Soto lezoarra lantaldean daude.

### JANTOKIA MARTXAN

Hilabete honetan eskola goizez bakarrik izanen bada ere, Guraso Elkarteak kudeatzen duen jantoki zerbitzua aste honetan hasi da. Urtean zehar asteazkenero eta ekainean ere, jantoki zerbitzua izatea erabaki du Guraso Elkarteak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Leire, Mainer eta Aintzaneekin solasean...

Leire, Mainer eta Aintzane ageri zaizkigu argazkietan. Aitzineko batean aipatu bezala, hiru kuadrillakideak esperientzia berriak bizitu dituzte uda honetan. Leire Mitxelena eta Mainer Etxague Perun Satipo hirian izan dira Kaipachainti GKE Gobernu Kanpoko Erakundearekin bolondres gisa. Aintzane Pikabea, beriz, Maltan izan da diruz lagundutako ingeles ikastaro intentsibo bat egiten. Leire erizaintza ikasketak egiten ari da Logroño unibertsitatean. GKE bat bisitan izan zuten unibertsitatean eta Leirek klaseko bertze lagun batzuekin batera, egitasmo horretan izana eman zuen. Hala, Satipon adinekoen egoitza eta ospitalean lanean jardun du ia hilabete batez. Mainerrek heziketa bereziko magisteritza bukatu zuen iaz Donostian. Leirek egitasmo horren berri eman, eta animatu egin zen. Ikasturtean murgilduak ziren Perun eta Mainer haurrekin antzerki tailerrak egiten aritu da. Halere, lehenbiziko astean Satipoko kartzelan alfabetetze kanpaina batean lan egin zuen. Aintzane hagitza bertzelako esperientzia izan du. Kimika ikasten ari da Donostian, baina ingelesa ikasteko asmoz, beka bat lortu eta Maltarako bidea hartu zuen. Familia batera joan eta goizez ingeles ikastaro intentsiboak egin zituen. Hiru ere esperientzia gozagarriak, aberatsak eta probatu beharrekoak direla adierazi digute.

### GURASO ELKARTE BERRITUA

Guraso Elkartearen lau aurpegi berri izanen dira:

Beatriz Iparragirre, Sonia Iturria, Pili Telletxea eta Arantxa Otegi ordezkari berriak dira. Aitzineko

bartzordetik Beatriz Taberna, Josune Otxandoren eta Koldobike Gorostizak segituko dute.

Tel: 948 634 179  
ARANTZA  
ALBERGEA - JATETXEA

Alberto RETEGI  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

Martiko  
Pol Zaiain, s/n.  
31760 Bera, Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
Abitzioak dituzkete eta erretseak

DENDA  
BROTEN  
ASTILHEGITEK  
ORTZIALERA

Martikorekin  
ZU ZEUK  
SUKALDARI.

8.30etik  
12.30era  
14.30etik  
17.00etara

ZJ  
Zaiain  
jateketa - hostala

14 logela bainu  
eta TBrekin

Zaiain auzoa z/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

## 'Mugarik Gabe' topaketa egingen da urriaren 3an Beran

Ekuadorri eskainitakoa izanen da

### TTIPI-TTAPA

Etorkinak eskualdean gizarteratzeko helburuarekin, eta herrialde bakoitzaren kultura hemen ere ezagutzeko, *Mugarik Gabe* topaketa antolatu dute seigarren aldiz Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Euskara Mankomunitateak eta Inti Kausay etorkinen elkarteak. Urriaren

3an egingen da Beran eta aitzinekoetan ez bezala, aurtien herrialde bati eskainitakoa izanen da berriz: Ekuador. Horren inguruan prestatu dute egitaraua.

### FUTBITO TXAPELKETA

Egun haundiaren aitzinetik, irailaren 26an, *Mugarik Gabe* bestan ohikoa bihurtu den futbito txapelketari emanen zaio hasiera. Egun horretan kanporaketak jokatu dira eta zortzi taldek parte hartuko dute. Berako kiroldegian ariko dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko *Mugarik gabe* topaketan saio ikusgarria eskaini zuen Topacio taldeak.

### JAIALDI HAUNDIA URRIAREN 3AN

- 11:00etan: munduko jokoak.
- 14:00etan: futbito txapelketako hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida.
- 16:00etan: futbito txapelketako finala.
- 17:00etan: Inti Kausay elkarteak manifestua-

ren irakurketa egingen du.

- 17:10ean: bertsolariak.
- 17:30ean: futbito txapelketako sari bana-keta.
- 17:45ean: dantza saioak: La Marinera Nor-teña (Peru), Alma Latina taldea (Ekuador) eta tangoa eta Cesan

- kantaria (Argentina).
- 19:00etan dastaketak, Inti Kausayren eskutik.
- 20:00etan: dantzaldia.

Aipatutakoaz gain, egun osoan haurrentzako txokoa eta Amazoniako indigenei buruzko erakusketa eta bideoak izanen dira ikusgai.

**BERAKO TOKI IZENAK IKERTZEKO eta horiek erabilgarri egingen dituen euskarria sortzeko beka deialdia**

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea - Berako Udala

**HELBURUAK:**  
Toponimia mapa eguneratzea, eta beratarrek herriko toki izenak ezagutzea eta erabiltzea.

**LANA EGITEKO EPEA:**  
2010eko irailaren 15era arte.

**HAUTAGAIEN BALDINTZAK:**  
Endi edo goi mailako unibertsitate titulua izatea, eta EGA edo titulua baliokideren bat.

**AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**  
Memoria labur eta zehatza, egin beharreko lanaren plangintza agertzen duena.  
Nortasun agiria.  
Curriculum vitae.  
Erroldatze agiria.

**ESKABIDEAK:**  
Bortzirietako Euskara Mankomunitatea  
Herriko plaza 7 - 31790 Arantza  
T.948 634125 - F. 948 634192  
euskarria@bortziriak.org  
largibideetarako bakarrik!

**INFORMAZIO GEHIAO**  
[oinarriak eskuratzeko]:  
www.bortziriak.org  
www.berakoudala.net

Beran, 2009ko irailaren 1ean  
Ainara Mais Almaridoz  
Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria  
Josu Iratzoki Agirre  
Berako alkatea

# SUNBILLA

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

## 57 ikaslek eman diote hasiera aurtengo ikasturteari

Zabalik dagoen jangelak 24 haur finko izanen ditu

### Jaione OTXANDORENA

Udako oporrak pasatuta, dagoeneko etxeko ttikienak eskolan hasiak dira. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak irailaren 3an hasi ziren eta zaharrenak irailaren 9an. Guztira 57 neska-mutiko dira.

Eskolako jangela ere martxan dago, eta 24 haur finko izanen dira. Horiez gain, bertze urteetan bezala, tarteka joateko zerbitzua ere eskainiko da.

### Trikitixa eta pandereta klaseak

Ikasturte berriarekin batera, ikastaroak ere martxan jartzen dira. Gurean aspalditik dago trikitixa eta pandereta ikaste -ko aukera eta aurtun ere

izanen da modua. Izena eman nahi duenak honako telefonora deitu behar du irailaren 20a baino lehen: 646 298568 (Ainara Mindegia).

### Trenbidearen inguruan bilera ortziralean

Ortziral honetan, irailak 18, 19:30ean bilera egingen da Herriko Etxean. Bertziko Partzuegoak, Udalak eta Lantalde batek deitu ditu Trenbidearen jabeak bilera eta batez ere bidearen erabilpenaren inguruan solasteko izanen da. Jabetzari buruz dituzten dokumentuak eraman beharko dituzte jabeek bilkurara.

### Erreka garbitzea larunbatean

Larunbat honetan, hilak 19, Bidasoa erreka garbitzeko eguna izanen da. 10:00etan egina da hitzordua, zubi berrian.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Ulibeltzak Mendi Taldearen ateraldia

Udako hilabeteetako geldialdiaren ondotik, Ulibeltzak Mendi Taldea berriro hasiko da mendi irteerekin. Horrela bada, igande honetan, irailak 20, Lesakatik abiatu eta Aiako Harrietara egingen dute ateraldia. Irteera honetan parte hartzeko prestakuntza ona izatea aholkatu dute antolatzaileek.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

### Igerilekuen denboraldi amaiera

Aurreko berrietan ikasturte eta ikastaroen berri eman dugu, baina horrek bertze gauza batzuen amaiera erran nahi du. Ekainaren 15ean atek zabaldu zituen herriko igerilekuak irailaren 15ean itxi zituen. Aurtengo udan egin duen eguraldi onak igerilekuaz maiz gozatzeko aukera eman digu. Orain, berriz ere, datorren ekainera arte esperoan egon beharko dugu.

## Sistemas de Oficina del Bidasoa S.L

- Zerbitzu teknikoa / Servicio técnico
- Kontsumibleak / Consumibles
- Multifuntzioak / Equipos multifunción
- Ekipo informatikoak eta sareak / Equipos informáticos y redes

**Canon**  
Centro Canon Autorizado



Santiago kalea, 7 • 20304 - IRUN • 943 631 818 • [bidaso@bidaso.canon.es](mailto:bidaso@bidaso.canon.es)



OSPAKIZUNAK → BESTA TTIKIAK

## Asteburu honetan besta ttikiak ospatuko dira

Ortziralean 20:00etan botako da txupinazoa

### TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Gazte Burrunba Kultur Taldearen ekimenez, besta ttikiak izanen dira ortziral honetatik igandera, irailak 18, 19 eta 20.

Besta ttikiei hasiera ofiziala eman aitzinetik, 18:30ean pintxoak izanen dira eta beranduego, 20:00etan plazatik txupinazoa botako da. Gauean 23:30etik aitzinera kontzertuak izanen dira: No signal eta Ierro hauek idazterakoa oraindik zehaztu gabe zegoen talde batek kontzertua eskainiko dute. Eta segidan, dantzaldia izanen da Laiotz taldearekin.

Larunbateko ekitaldiekin segituko du bestak. Eguerdian tortilla eta paella txapelketa izanen dira eta ondotik bazkaria. Bazkalondan txarangaren bat ere izanen da, eta gauean, 00:00etan Garraxi taldearekin dantzaldia izanen da.

Igandean, azkenik, Udalak antolatuta, neska-mutikoentzako mago ikuskizuna izanen da.

### Biribilgune berria Eskola inguruan

Trafikoa hobeki bideratzeko helburuarekin, eskolaren parean egitekoa zen biribilgunea erabiltzaileen esku dago dagoeneko. Mariezurrena enpresak egin ditu lanak eta bere garaian aipatu bezala, 393.748,06 euro gasta dira; horietatik

282.408 euro Nafarroako Gobernuak bideratu ditu.

Biribilgune berria eraikitzearekin batera, autobus geltokia tokiz aldatu da, eta Nafarroako Kutzaren ondoan zegoena, eskolaren ingurura eraman dute.

Orain arteko geltokia 15-16 autorentzako aparkalekuak egiteko

aprobetxatuko da. Orduetegi komertziala edukiko dute aparkaleku horiek, 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta gehienez ere 15 minutuko egonaldia egiten ahal izanen da. Orain arteko markesina turismo bulegoa egiteko erabiltzea da Udalaren asmoa.



ARGAZKIA: HARITZ ARRIOLAK UTZIA

### Doneztebe Futbol Taldeak hasi du denboraldi berria

Hasi du denboraldia Doneztebe Futbol Taldeak. Aurkezken ofiziala irailaren 5ean egin zuten, eta lehengo astean, berriz, ligari ekin zioten. Argazkian ageri direnek osatuko dute taldea denboraldi honetan. Dena den, aipatu, hiru jokalaririk falta direla: Joseba Petrirena, Iban Santesteban eta Fermin Orrio. Gainerakoan, hauek dira argazkian ageri direnak. Goiko lerroan, ezkerretik eskuinera: Andoni Bertiz, Jon Apeztegia, Haritz Arriola, Eduardo Bertiz, Liborio Ariztia eta Mikel Arrieta. Erdiko lerroan ezkerretik eskuinera: Iñigo Ostiz, Jon Maritxalar, Iker Irazoki, Garikoitz Urroz (bigarren entrenatzailea), Mikel Maia (entrenatzailea), Haritz Baleztena eta Urko Loiarte. Beheko lerroan, ezkerretik eskuinera: Haritz Goñi, Ibai Ordax, Iñigo Latasa, Ander Bertiz, Jaime Sein, Jokin Apeztexea, Mikel Telletxea, Aitor Bertiz.

### FLASH

#### Ortziral honetan akituko da Musika Eskolan matrikultzeko epea

Ekainean matrikulatu ez zenak, oraindik bado astia Agorreta Musika Eskolan. Epe berezia zabaldu dute eta horretarako azken eguna ortziral hau, irailak 18, izanen da. 10:00etatik 12:00etara egonen da irekita idazkaritza. Ikasturtea, berriz, urriaren 1ean hasiko da.

#### AUKERA ZABALA

Ikasturte berrirako ere eskaintza zabala prestatu dute: musika eta mugimendua (5-6 urtekoentzat); musika hizkuntza (7 urtetik goitikoentzat); abesbatza; musika tresnen taldea; helduen tailerra... Hauek dira ikas daitzkeen musika tresnak: klarineta, saxofoia, gitarra, gitarra elektrikoa, tronpetea, txistua, pianoa, bateria, akordeoia, panderoa eta trikitixa.

#### ERAMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Musika Eskolatik jakinarazi dutenez, matrikulazioa egiterakoan dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: matrikula orria beteta; aurrezki kontuaren lehen orriaren kopia; Rural Kutxan egindako 18,8 euroko ordainagiria eta Gizarte Segurantzaren kopia.

ttipi-ttapa  
info@ttipi.net  
(0034) 948 63 54 58

aurrera kade  
Iker berrikuntza  
(entzumeneko gaitasunak)  
916 415 000  
947 675 000  
Berriena kalea, 10  
31791 Nafarroa

BELARRA  
JATETXEA  
Nafarroa, Berriena kalea 10, 31791 Nafarroa

## ITUREN

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

# Sei neska-mutikok hasi dute ikasturte berria

Hiru urteko lau neska dira eskolako gaztetxoak

Arkaitz MINDEGIA | ITUREN

Dagoeneko bueltatu dira eskolara haur eta gaztetxoak. Aurten sei ikasle berri hasi dira, eta horietatik hiru urtekoak lau neska dira: Iraide Alberro Isasi, Ilargi Martinez Leiza, Izaro Arretxea Mikeo eta Alodigarazi Manterola Urrotz. Bortz urtekoen taldean Maddi Astrain Altxu gehitu da aurten eta Lehen Hezkuntzako lehenbiziko mailan Endika Astrain Altxu hasi da. Guztira 49 ikasle dira eskolan.

Irakasle berriak ere etorri dira gurera. Itxaro Haur Hezkuntzan arida, Miren Musika irakasten eta Amaia Iaguntzaile gisa.

## Alkateordea lanean

Mikel Petirena alkatearen osasun arazoak direla-eta, Joxe Mari

Gorosterrazu lehenago ere alkate izandakoa arida ordeztu lanetan.

## Trikitixa eta pandereta ikastaroak

2009/2010 ikasturtean Mendaur Trikitixa Eskolan (Ainara Minde-

gia) hasi nahi dutenek irailaren 20ra bitarteko epea izanen dute izena emateko. Horretarako 646 298568 telefonora deitu beharko da. Urtero bezala, Ituren, Oronoz-Mugairi eta Sunbilla emanen dira klaseak eta ikasturte berria urrian hasiko da.

## San Martinak prestatzen

San Martin bestak prestatzen ere hasi dira aurtiztarrak. Lehenbiziko bilera joan den ortziralean, irailak 11, egin zuten. Aurten San Martin Eguna asteazkenarekin tokatzen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Ekiñe eta Ane Mihiluzen

Kike Amonarriz eta Ilaski Serranok aurkezten duten ETB1eko Mihiluze saioan, Aurtizko eta Zubietako bikote honek parte hartuko du. Ekiñe Mindegia eta Ane Anso irailaren 2an Donostian izan ziren casting ttiki bat egiten eta orain, ortziralean honetan, irailak 18, grabatzera joanen dira. Zorte on!

## HONDAKINAK

'Ura?

Pitxerlean, dudarik gabe'

## TTIPI-TTAPA

Helburua ez da berria, baina ekimena bai. Bortzirriak eta Malerrekako Mankomunitateek eta Baztango Udalak abian paratu duten kanpaina berria ostalaritzan sortzen diren plastikozko hondakinak murriztera dator. Hemengo grifoko ura ona delako, ur horren kontsumoa bultzatu nahi dute eta bide batez, botiletako uraren kontsumoa murriztu, honek sortzen duen hondakin kopurua guttitzeko. Ekimen berri honekin, menuan sartzen diren edariak eskaintzerakoan, bezeroak ura eskatuz gero, hori pitxer batean aterako litzateke eta ez botilean. 700 pitxer egin dituzte Bortzirriak, Baztan eta Malerrekako 86 jate-txetan banatzeko eta Bortzirietako Hiri Hondakinaren Mankomunitateetik TTIPI-TTAPAri adierazi diotenez, «harrera ona» izan dute, «gehienek baieztatu dute».

Ecoembes edukiontzien birziklapena kudeatzeaz arduratzen den erakundeak urtero ematen duen laguntza baliatu dute mankomunitate eta udalek pitxerrek egiteko.

Ura? Pitxerlean, dudarik gabe izena duten pitxer hauek dagoeneko banatuak ez badira, laster banatuko dituzte inguruko jate-txetan.

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**ttipi-ttapa**

- Paperezko edizioa
- Hemeroteka
- Eguneko berriak
- Agenda
- Merkatu ttikia
- Eguraldia
- Urtebetetza...

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

BESTAK → URROZKOAK IRAILAREN 25ETIK 29RA

# Saralegi, Kastro, Erasun eta Olano igandeko aizkora apustuan

Asteleheneko herri bazkarian Peñagarikano eta Irazu ariko dira

rien erakustaldia. **Ilunabarrean** patata tortilla eta postre lehiaketa Herriko Plazan. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia AGERRALDERekin.

## ORTZIRALA 25

## ASTELEHENA 28

**20:00etan** altxaferoak eta ezkil-jotzea. **Ondotik** Baztan Zopak Herriko Ostatuan. **00:00etatik** aitzinera dantzaldia ITZALAK taldearekin.

**10:00etan** mus txapelketaren finala. **11:00etan** Gorriti bere abereekin. **14:30ean** herri bazkaria Anjel Mari Peñagarikano eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin. **Ilunabarrean** zingar eta ziztor jatea. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia JOXE ANJELekin.

## LARUNBATA 26

**10:00etan** mus txapelketa. **17:00etatik aitzinera** haur eta gazteen esku pilota partidak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

## ASTEARTEA 29 San Migel Eguna

## IGANDEA 27

**12:30ean** aizkora apustua: Saralegi-Kastro eta Erasun-Olano. **Goiz eta arratsaldez** haurrentzako puzgarriak. **18:00etan** Lesakako trikitala-

**11:30ean** Meza Nagusia. **Ondotik** nahi duen guziarentzat zizkamizkak Herriko Ostatuan. **Bazkal aitzinetik** herriko gazteen arteko herri kirol lehiaketa. **18:00etan** haurrentzako joakoak. **19:00etan** herriko gazteen arteko pa-



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Dantzarako abilezia erakutsi nahi duenak aurten ere izanen du horretarako aukera.

la partidak. **21:30ean** gazteen afaria eta dan-

tzaldia SALABERRIrekin. **Goizaldera** GAI-

XOA NI bestak agurtzeko.

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

telurra egriko atzarak eta dekorazio abagarrak  
Aitzinen zaharberitze eta moldaketak

**ingurulan**

Joseba@ingurulan.com 616295420 Urrotz

Urrozko Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue

## ARTZAIN TZA

ARTZAIN TXAKUR LEHIAKETA → UHARTE-ARAKIL

# Nafarroako hamargarren txapela eman dio *Ttiki* Antonio Alustiza aresoarrari

42. Nafarroako Artzain Txakur Txapelketa jokatu da Uharte-Arakilen

**TTIPI-TTAPA**

*Ttikiri* esker, bere hamargarren txapela etxean du Antonio Alustiza aresoarrak. Abuztuaren 30ean Nafarroako Artzain Txakur Txapelketaren 42. edizioa jokatu zen Uharte Arakilen, eta seigarren urtez segidan, Aresora joan zen txapela. Antonio Alustizak eskuratu zuen, *Ttiki* txakurrekin. Txapelaz gain, trofeoa eta 200 euro jaso zituen.

1993an eskuratu zuen Alustizak bere lehen garaipena, *Argi* txakur-rarekin. 1996an ere txapeldun izan zen, baina orduan *Jaire*kin. 2000 eta 2001ean ere, irabazle izan zenean, *Jai* izan zuen ondoan. 2004an eta 2005ean, berriz, *Argi*rekin jantzi zuen txapela eta 2006az



geroztik, *Ttiki* du ondolan. Hamar garaipen, beraz, eta horietatik lau *Ttiki* oraingo txakur-rekin eskuratutakoak.

**BIGARREN ETA HIRUGARREN POSTUAK BAZTANERA**

Bigarren eta hirugarren

postuak ere eskualdean gelditu ziren: Baztanen. Joxe Mari Istilart amaiurtarrarentzat izan ziren, *Lagun* eta *Xarpa* txakurrekin lortu zituen bi postu horiek. Postu horiekin trofeoak eta 145 euro eta 115 euro hartu zituen.

**ZORTZI ARTZAIN ETA HAMAR TXAKUR**

Zortzi artzain eta hamar txakurrek parte hartu zuten Uharte Arakilgo lehian, eta gehienak ingurukoak: Antonio Alustiza aresoarra, Joxe Mari Istilart amaiurtarra –bi txakurrekin–, Pedro An-

ARGAZKIAK: I. UGALDE

Goiko argazkian Antonio Alustiza txapelduna ageri da, eta behekoan, berriz, bigarren eta hirugarren postuak eskuratu dituen Joxe Mari Istilart amaiurtarra.

**SAILKAPENA**

- 1 Antonio Alustiza eta *Ttiki* (Areso)
- 2 Joxe Mari Istilart eta *Lagun* (Amaiur)
3. Joxe Mari Istilart eta *Xarpa* (Amaiur)
4. Jesus Razkin eta *Hiru* (Etxarri Aranatz)
5. Pedro Ansa eta *Alai* (Arano)
6. Josetxo Villabona eta *Argi* (Leitza)
7. Antonio Uharte eta *Lagun* (Uharte-Arakil)
8. Jorge Oteiza eta *Azeri* (Oronoz-Mugairi)
9. Jorge Oteiza eta *Amets* (Oronoz-Mugairi)
10. Jabier Fernandez eta *Luna* (Campanas)

sa aranoarra, Josetxo Villabona leitza, eta Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza –bi txakurrekin–.

**EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELAK**

Kartulina berezia 300gr. - koloretan bi aldeetatik - Distira akabera

Ez hutsik egin eskaintza berezi hau!

	100	200	500	1000
Egutegiak (8,5 x 3,5cm)	70€	85€	110€	150€



Andutzeta, 12 - 31760 Etxalar - Tel. 948 635 458 - Faxa 948 635 457



TURISMOA → KARLISMOA NAFARROAN

# Karlismoari buruzko Nafarroako ibilbide turistikoa gure lurretan barna

Bera, Elizondo, Etxalar eta Zugarramurdin barna pasatzen da

## TTIPI-TTAPA

Karlismoari eskainitako ibilbide turistikoa sortu du Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentua eta «Karlismo garaian Nafarroan garrantzi berezia» izan zuten tokiak aukeratu dituzte horretarako. Nafarroako 14 herritatik pasatzen da ibilbidea eta hiru zatitan banatu dute: Lizarra aldea, Altsasu ingurua eta Nafarroako iparraldea. Hain zuzen, azken zati hori eskualdetik pasatzen da: Bera, Elizondo, Etxalar eta Zugarramurdin.

Sei panel eta 12 informazio-kartel paratu dira Nafarroa osoan. Panel horietako bat Elizondon dago eta 1834ko uztailaren 10eko gertaera bati egiten dio erreferentzia. Egun horre-



ARGAZKIA: ETXALARKO KULTUR ETXEA

Karlismoari buruzko ibilbide turistikoa Etxalartik pasatuko da. Argazkian Etxalarko Eliza

tan, Zumalakarregi generala eta karlisten er-

## GERTAERA

**1814ko uztailaren 10ean Zumalakarregi generala eta Carlos V.a Elizondon bildu ziren, eta hori ageri da Elizondon paratu dute informazio panela**

rege izateko hautagaia zen Carlos V.a bertan bildu baitziren.

Bera, Etxalar eta Zugarramurdin, berriz, kartelak paratu dituzte. Herri horietan izan ziren borroketan buruzko irudi eta testuekin osatuak dira.

Karlismoaren ibilbideak hartzen dituen gainerako herriak hauek dira: Altsasu, Lakar, Gares, Lizarra, Abartzuza,

Arroitz, Aiegi, Etxauri, Mendigorria eta Orokieta-Erbiti.

## KARLISMOAREN MUSEOA LIZARRAN

Ibilbideaaren helburua turismoa erakartzea da, eta horrez gain, karlismoari buruzko museo ere egin nahi du Gobernuak Lizarran. Karlismoari buruzko erakusketa eta dokumentuekin egin nahi du.

DATUA

4

**INFORMAZIO PUNTU** paratu dira eskualdean: Elizondon informazio-panel bat, eta Etxalarren, Beran eta Zugarramurdin informazio-kartelak

## BERTZE BI IBILBIDE TURISTIKO NAFARROAN

Karlismoaren ibilbidearen aitzinetik, bertze bi bide turistiko ere egin berri ditu Nafarroako Gobernuak: Hemingwayrena eta Sorginperiarena.

Lehenbizikoa Iruña, Auritz, Ariebe, Lekunberri eta Esatik pasatzen da; eta bigarrena Erronkari eta Zaraitzu bailetatik, gure ingurutik (Zugarramurdi, Urdazubi, Arraioz, Bera eta Doneztebe), Anotzibar, Larraun, Leitzaldea (Areso), Araitzetik eta Lizarra aldetik igarotzen da.

**COLCHONES ATSEDEN**  
KOLTXOI FABRIKA



**OPORRAK PLANA**  
Zure amesteko bidaiarealitate bihurtzeko COLCHONES ATSEDENEK hotel batean 7 gau oparitzen dizkizu 800€ edo gehiagoko erosketa egiteagatik, edo nahiago baduzu zure erosketa 12 hilabete arte interesik gabe finantzatzeko aukera ematen dizu.

[www.colchonesatseden.com](http://www.colchonesatseden.com)  
Aprobetxatu promozioa

Eta hau guzti guzti gure botiko prezioetan, lantegiko prezioetan

Ez utzi zure oporrei ihes egiten!

Iruña-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • Bilbaterrera Astea • 948 346 006 • BURLATA • Iruñaldea, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA

## GOIZUETA

KULTURA → ZINEMA

# Ikusmina sortu du 'Mugaldekoak' telefilmearen grabaketak

20 herritarrek hartu dute parte figurante moduan

## Esteban AROTZENA

Bigarren Mundu Gerran aritutako mugalarri sarearen inguruko istorioa kontatzen du aurreko bi asteetan herriko kaleetan eta hainbat auzotan (Aitasemegi, Artikutza...) grabatu duten *Mugaldekoak* izenburuko telefilmak.

Mireia Gabilondok eta Fernando Bernuesek ETBrentzat zuzendutako lan honek politika, maitasuna eta akzioa biltzen ditu. Gabonak aldera estreinatzeko asmoa dute. Gainera, 13 ataleko telesaila egingen dute ondoren, baina hauek platoon grabatuak izanen dira ia osorik, Tentazioak ekoiztetxeok esan zigutenez.

Ikusmira sortu du herritarrengan grabaketa honek. Figurante



ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA ETA ALAITZ ESKUDERO

Herrian ikustera oso ohituak ez gauden gauzak ikusi ditugu film honen grabaketetan. Hobe horrela...

moduan parte-hartze zuzena izan dute, gainera, 20 herritarrek, Klara Badiola edo Iñaki Beraetxeren mailako aktoreen ondoan.

## Euskal Jaia eta talo jatea Iskibin

Igande honetan, hilak 20, Euskal Jaiaren bigarren edizioa ospa-

tuko da Iskibi kanpian. Iaz hain arrakastatsua suertatu zen festa honen ardatza, 14:00etan egingen den talo-jatea da dudarik

gabe. Herri kirol desafioa (Oiartzun-Goizuetan), toka txapelketa eta Naroa eta Arratek joko duten berbena, berriz, eguna borobiltzeko balioko duten osagarriak izanen dira.

## BESTE ZENBAIT EKITALDI

Euskal Jaiaren aurretik, ostiral honetan bertan, Nepali buruzko bideo emanaldia eskainiko du Josebak 22:30etik aurrera. Hurrengo larunbatean, berriz, hilak 26, kontzertua izanen da Oiartzungo Nunguajazz taldearekin. Eñaut DJk osatuko du gaua.

## Zubi-Muxun aterpea egiteko 414.000 euro

Nafarroako Gobernuak 414.704,76 euroko dirulaguntza emanen dio Udalari, honek Zubi-Muxun aterpea egin dezan. Turismo produktuak garatzeko banatuko duen laguntzaren barne onartu du.

**Behetik**  
AULN JASOTZALEAK

Añorgabiki 14  
Tel: 943 368 781  
671 073 888  
behetik@behetik.com  
www.behetik.com  
20018 DONOSTIA

URRIAN  
MODA  
gehigarria

Publizitatea erreserbatzeko  
azken eguna  
irailaren 22a  
948 635 458

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

## Aspaldiko haur talderik handiena eskolaratu da aurten

Zortzi neska-mutikok hasi dute ikasturte berria

### Maidar, Ainhoa eta Kontxi

Aranoko haurrak Goizuetako eskolara joaten dira aspaldiko urteetan. Hasiera hartan haur dezente joaten bazen ere, azken urteetan beheraldi nabarmena izan dugu biztanle txikienetan batez ere. Hala ere, badirudi buelta hartua duela behe-ranzko joera horrek eta aurten zortzi dira egunero Aranotik Goizuetara mugitzen diren haurrak. 3 eta 7 urte artekoak dira: Azahara, Ander, Intza, Oihan, Eneritz, Naroa, Jokin eta Unai. Horietatik hiru dira Goizuetako eskolan



ARGAZKIA: AINHOA ANSA

Argazkian ageri diren neska-mutikoez ekin diote ikasturte berriari. Atzean daudenak Azahara eta Ander dira, eta aurrean, ezkerretik hasita: Unai, Intza, Oihan, Eneritz, Naroa eta Jokin.

berriak: Intza eta Oihan, hiru urtekoak, eta Jokin, sei urtekoa.

Esan beharra da, zortzi hauek ez direla Aranoko haur bakarrak.

Batzuk oraindik eskolarako garaia iritsi gabea dute eta beste batzuk Donostia eta Herri-naniko ikastetxeetara joaten dira.

### Kontseju zabalik

15 eguneko oporren ondotik, Kontseju tabernak zabaldu ditu berriz ateak. Asteazkenean, hilak 16, irekitzekoa zen.



**Pertsonaia**  
Pedro ANSA

Uharte-Arakilgo Artzain Txakur lehiaketan *Alai* txakurrarekin

Abuztuaren 30ean Nafarroako Artzain Txakur Txapelketaren 42. edizioa jokatu zen Uharte-Arakilen, eta joan den urtean bezala, han izan zen Pedro Ansa herritarra. *Alai* izan zuen ondoan Ansa eta iazko hirugarren postua lortzerik izan ez bazuen ere, zorionak emateko modukoa da txakurra hala ibiltzeko gai izatea. Zorionak, beraz, eta segi horrela!

edredoi fundak  
albomozak  
edredoi nordikoak  
ohe estalkiak  
maindireak  
mantelak  
kuxinak  
toailak

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Mantetan eskaintzak**

Tafalla, 13 • IRUÑEA  
948 230 634

# ARESO

KIROLA → MENDIA

## Marka guztiak hautsi ditu aurtengo Mendi Martxak

280 mendizale inguru hurbildu ziren irailaren 6an

Juana Mari SAIZAR | ARESO

Aurtengo Mendi Martxa oso arrakastatsua izan da. Iazko marka hautsi, aurreikuspenak gainditu eta 280 pertsona inguru izan ziren parte-hartzaileak. Antolatzaileak gustura gelditu dira.

Aurreko atalean esan bezala, paella jatea egon zen ondotik bazkaritarako. Bi paellera handi prestatu ziren eta Mendi Martxa bukatzearekin batera platerkada bat banatu zitzairen nahi zuten guztiei. Horrekin batera, zumoak eta sagardoak ere banatu ziren. Kirol materialak ere zozketatu ziren parte-hartzaile guztien artean, eta zorte onekoie tokatu zitzairen oparia. Hala ere, esan beharra dago, kamisetak eman zitzaizkiela opari gisa mendizale guztiei.



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

Jende asko etorri zen Aresora irailaren 6an egin zen II. Mendi Martxan parte hartzeko.

### Hasi da ikasturte berria

Ikasturte berria 20 ikasle eta hiru tutorekin abiatu da. Hilaren 7an hasi ziren.

Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailak Mikel Illarregiren ardurapean daude, Haur Hezkuntzakoak Lierni Sagastibeltzarenean eta besteak berriz, Ibero hauetarakoan etor-

tzekoa den irakaslearen ardurapean egongo dira. Hauetaz aparte, ingelesa ematen, Arantxa lanaldi erdian ariko da.

Haur Hezkuntzakoak hamar dira osotara eta Lehen Hezkuntzan ere beste hamar daude, bosnaka banatuak. Hasiberriei dagokionez, bi dira berriak: Ibai eta Itoitz.

### Ehiztariak prest

Ehiza garaia ailegatu da eta honekin batera, Usoa Elkartearen ehi-za postuak garbitu eta berritzeko lanak antolatzen ari da. Aurtengo usategien enkantea, ortzegun honetan, irailak 17, egitekoa da, 19:00etan. Bigarrena, berriz, irailaren 26an, hau ere 19:00etan izango da.



### Pertsonaia

Antonio ALUSTIZA

Hamargarren aldiz Nafarroako txapeladun

Joan den abuztuaren 30ean egin zen Artzain Eguna Uharteko Arakilen, eta horrekin batera, Nafarroako Artzain Txakur Lehiaketa jokatu zen. Han izan zen Antonio Alustiza aresoarra eta garaile atera zen, gainera, bere txakur Tikirekin. Azken honekin, hamargarren aldia da txapelketa haur irabazten duela. Bide horretan, hiru txakur izan ditu ondoren: Argi, Jai eta Tiki. Nafarroakoa irabazita, Euskal Herriko Txapelketarako sailkatu da, eta hau Oñatin egingo da. Nafarroako Txapelketari buruzko xehetasun gehiago 24. orrialdean aurkituko dituzue.

## EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELAK

Kartulina berezia 300gr. - koloretan bi aldeetatik - Distira akabera

Ez hutsik egin eskaintza berezi hau!

	100	200	500	1000
Egutegiak (8,5 x 3,5cm)	70€	85€	110€	150€



Kulturkari

Andutzeta, 12 - 31760 Etxalar - Tel. 948 635 458 - Faxa 948 635 457





OSPAKIZUNAK → AISIALDIA

# Aurrera Kirol Elkartearen III. Pesta egingen da urriaren 3an

Bazkarirako txartelak irailaren 28a bitarte egonen dira salgai

## TTIPI-TTAPA

Atzean gelditu dira garai txarrak, eta orain indartsu dago Aurrera Kirol Elkartearen III. Pesta. Aurrera segitzeko gogoz, gainera. Azken urteotan antolatutako Aurrerako Pesta ere arrakastatsua izan da, eta aurtengoa ere hala izatea espero du. Hirugarren edizioa izanen da eta urriaren 3an, larunbatarekin, izanen da.

## EGITARAUUA

- 9:00: diana txistulariekin.
- 11:00-14:00: haurren txakur txakur, rokodromo eta zaldi ibilaldiak plaza inguruan.
- 11:00: Aurrera Pilota Eskolako pilotarien saioa.
- 12:00: Aurrerako dantzarien saioa plazan.
- 13:00: poteoa Incansables txarangarekin.
- 14:30: bazkaria bazkideentzat eta bazkideen bikotekideentzat karrapen.
- Bazkalondoan: Aurrerako bazkideen Ingu-rutxoa.
- Ondotik kalejira Incansables txarangarekin.
- 21:30: Aurrera elkarte-

ko atarian, luntxa bazkide eta bikotekideentzat. •Ganean dantzaldia AGERRALDERekin.

## BAZKARIRAKO TXARTELAK

Ohi bezala, bazkaria bazkide eta hauen bikotekideentzat izanen da. Txartelak ere salgai daude Txokon eta Peritzan, 15 eurotan bazkideentzat eta 22 eurotan bikotekideentzat. 65 urte beteak dituztenek dohainik

izanen dute bazkaria, baina 608 789293 telefonora deitu beharko dute konfirmatzeko. Txartelak hartzeko azken eguna, berriz, irailaren 28a izanen da.

## Ikasturte berria

242 neska-mutikok hasi dute ikasturte berria Erleta eskolan, iaz baino 20 gehiagok. Hiru urteko hasiberriak 42 dira eta aurreko eskola utzi dutenak, berriz, 22.

## ABISUA IRAKURLEARI

Hurrengo egunotan TTIPI-TTAPAtik telefono deia hartuko duzue. Harpidetzaren datuak eguneratu bidenabar, aldizkaria kostatzen denaren zati bat aurrerantzean norberak ordaintzea eskatuko zaizue (urtean 15 euro).



ARGAZKIA ETA TESTUA: ASIER IMAZ

## Miki Zabaletarena da Nafarroako talorik onena

Plazaola Partzuergo Turistikoa antolatuta, Taloaren Eguna egin zen irailaren 6an laugarren aldiz, eta eguraldi bikainak lagunduta, jende andana igaro zen herritik goiz guztian. Protagonista bai, taloa izan zen, baina haren inguruan beste hainbat ekintza ere izan ziren herrian. 11:00etan heldu zen eguneko ekitaldi nagusia, taloaren txapelketa. Ez zen edonolako gainera, Nafarroako I. Talo Txapelketa izan baitzen. Hamar lagunek parte hartu zuten txapelketaren lehen edizioan, eta garaipena etxean gelditu zen. Miki Zabaleta herritarren taloa aukeratu zuen epai-mahaiak. Eukene Barriola eta Milagros Ijurko bigarren eta hirugarren gelditu ziren, hurrenez hurren. Txapelketa irabazita 100, 50 eta 25 euro jaso zituzten aipatu hirurek.

## FLASH

### IV. Literatur Lehiaketa abian

Idazteko zaletasuna duten 16 urtetik gorako herritarrentzako Literatur Lehiaketa antolatuta du ALKE Kultur Elkarteak. IV. edizioa izanen da aurtengoa eta bategatik, narrazio eta ipuin lehiaketa izanen da eta bertso-paper lehiaketa bestetik. Denak ere euskaraz eginak izan beharko dute eta gaia librea izanen da. Orriek DIN-A4 tamainakoak izan beharko dute, eta alde bakarretik idatziz, lerro-tarte bikoitzaz.

**Narrazio eta ipuin lehiaketak**, gutxienez lau orrikoa izan beharko du, eta 16koa gehienez. (Arial motako letra erabili eta 11 tamainakoa). **Bertso-paper lehiaketan**, gaia bezala, neurria ere librea izanen da eta lau bertsoetik gorako eta 16tik beherakoa izan beharko du.

### AURKEZPENA

Lan bakoitzaren hiruna kopia aurkeztu beharko dira, izengoiti batekin sinatuta. Gutunazal itxi baten barnean, berriz, egilearen datuak adieraziko dira: izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Lanak Astiz eta Maimur liburu-dendentan aurkeztu behar dira, eta urriaren 31n bukatuko da epea.

### SARIAK

Sari banaketa azaroan egingen da. Parte-hartzaile guzietatik izanen dute sariren bat, eta sari bakoitzeko irabazleak, berriz, 150 euro eskuratuko ditu, eta bi lagunentzako otordua. Lanen bilduma egiteko asmoa ere badu ALKEk, gero Interneten paratuzko, eta liburutegian eta eskoletan ere banatuko da.

Iritzi bloga  
BERRIA  
www.ttipi.net

gaztelu sol  
Iturgintza  
kalefakzioa · saneamendua · gasa  
Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156  
Faxa: 948 610 856  
LEITZA

# BAZTAN

**BESTAK** → ANIZKOAK URRIAREN 3TIK 5ERA

## Euskadiko Hirugarren Mailako Aizkolarien saioa jokatu da Anizen

Urriaren 4an, igandearekin izanen da

### LARUNBATA 3 Bezpera

**12:00etan** ezkil-jotzea eta beste hasiera emateko altxaferoa. **12:30ean** haurrentako jokoa. **14:00etan** haurrentako bazkaria. **15:30ean** gaztelu puzgarriak. **18:00etan** txokolate jatea. **19:30ean** dantzaldia. **20:45ean** Baztan Zopak. **Ondotik** dantzaldia. **Akitzeko** xingar jatea.

### IGANDEA 4 Arrosarioko Amabirjinaren Eguna

**11:00etan** Iratxe eta Jone txistulariekin kalejira. **12:00etan** Meza Nagusia. **13:00etan** otordua. **18:00etan** Euskadiko III. Mailako Aizkolarien Kanporaketa. **18:30ean** kantaldia. **Akabailan** afaria.

### ASTELEHENA 5 Adiskidetasun Eguna

**11:00etan** Mus txapelketa. **14:00etan** zikiro jatea, JOXEANJELein. **18:00etan** ginkana. **21:00etan** xingar jatea. **Akitzeko** GIZAJOA NI.



ARGAZKIAK: MAIDER AZKARATE

Umorea eta dantzarako gogoia seguruak izanen dira aurtengo bestetan ere.

## Mundua zure esku jartzen dugu



### ARGENTINA

Irufetik taldeko irteera • 2009ko azaroaren 21etik abenduaren 8ra  
Bisitak, gidariak, parkeetara sartzerak, mantenu-erdi

PSP **3.896€**  
+ airepotu-tasa



**VIAJES  
MARFIL  
& VACACIONES**

Calles 11 Sur - 12.15 BUREA  
948 208 245 - carlos3@marfilviajes.com  
Paseo Capatzen, 45 BUREA  
948 200 200 - gisela@marfilviajes.com  
Parque Plaza, 13 BARRIAÑA  
948 208 205 - karlos@marfilviajes.com  
LA MANSIONA merkataritza zerbitzu COPACABANA  
948 200 220@marfilviajes.com  
Garcibaldia kalea, 3 TUTERA  
948 588 410 - tuteia@marfilviajes.com



# bizi munduko energia guztia rekin

Gasa eta elektrizitatea bateratuz, etxeko ongizatea baino askoz ere gehiago lortu dugu. Orain aukera dezakezu nola bizi eta nola moldatu energia zure beharretara. Hori lortzeko esperientzia eta gaitasun guztiak dauzkagu. Gas Natural eta Union Fenosa konpainia bakar batean bildu ditugu eta gure energia guztiak erabiliko ditugu munduko 23 herrialdeetan ditugun 20 milioi bezero baino gehiagoren bizimodua egunero hobetzen joateko. Gurekin etorriko zara?



[www.gasnaturalyunionfenosa.com](http://www.gasnaturalyunionfenosa.com)

# BAZTAN

TURISMOA → UDAKO DATUEN BALANTZEA

## Lekarozko golf-zelaiaren proiektuak hasierako onarpena hartu du

Alegazioak aurkezteko epea zabalik

### TTIPI-TTAPA

Lekarozko Aroztegia Jauregian hotela eta golf-zelaia egiteko proiektua martxan da. Udalaren hasierako onarpena hartu du, eta orain Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik hilabete bateko epea dago alegazioak aurkezteko.

Proiektuaren bultzatzaileek lau izarreko hotel bat egin nahi dute, eta horrekin batera, inguruan 40 hektareako golf-zelaia. Gisa berean, hainbat etxebizitza eraikitzeko partzelak egitea ere proposatu dute.

Udalak joan den astean eman zion hasierako onarpena proiektuari, eta orain, aipatu bezala, alegazioen txanda da. Arazorik gabe aitzinera aterako balitz, lanak hurrengo urtean hasiko lirakeke.

### Piriniotako behien lehiaketa eta enkantea irailaren 26an eta 27an

Aurten 22. aldiz piriniar arrazako behien lehiaketa-enkantea eginen da Elizondon, irailaren 26an eta 27an. Ohi bezala, inguruko neka-

zarien aziendek gain, hainbat bazterretatik etorritako nekazarien ehunka abelburu ikusgai izanen dira.

### LARUNBATA, HILAK 26

- 10:00 aitzinetik: azien-dak Merkatuko Plazan egon beharko dute.
- 12:00etan: Baztan-Zopak.
- 18:00etan: behi-azien-

den erakusketa. Epai-mahaikideek azien-dak puntuatuko dituzte.

- 22:00etan: parte-hartzaileen afaria.

### IGANDEA, HILAK 27

- 10:30-14:00: Baztango artisauen azoka.
- 11:00etan: *Nafarroako Aretzea* haragiaren eta *Baztangoa* gaztaren dastaketa.

- 12:00etan: behi-azien-daren enkantea.

- 13:00etan: sari banaketa.

- Ondotik: Aspina elkar-teak aretze bat zozketatuko du.

Aipatu, irailaren 25ean, ortzirala, azien-dak Merkatuko Plazan sartzeko aukera izanen dela, 15:00etatik aitzinera.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

### Hurrengo urtean ere eginen da Behikaka.com

Elizondoko Santio besten barne, iragarri bezala, Xorroxin Irratiak *Behikaka.com* zozketa egin zuen. Lore, Zagua eta Erdiz behiak lanean paratu zituzten hiru sari banatzeko helburuarekin. Euren lana ongi bete, eta lehenbiziko eta hirugarren sariak egun berean banatu ziren. Bigarren sariaren jabea, ordea, ez zen momentuan agertu eta abuztuaren 26ra bitarteko epean ere ez zuen seinalerik eman. Epea pasatuta, bigarren sari hori bazkideen artean zozketatzea erabaki zuen Xorroxin, eta irailaren 4an saridunen izenak atera zituzten. Lau azpisari zituen bigarren saria honela banatu zen: Erratzuko Joxe Mari Apezetxea Fagoaga (Isabako Txapatera landetxean asteburuko egonaldia 6 lagunendako); Berako Bixente Taberna Sein (Arabako Murua herrian, Gorbeia landetxean asteburuko egonaldia 2 lagunendako), Elbeteko Belen Urrutia Hualde (Aizarozko ostatuan afaria 2 lagunendako) eta Oñatiko Roberto Ordorika Ezkurdia (Lurlan produktu lote bat). Heldu den urtean ere berriz ere *Behikaka.com* zozketa eginen du Xorroxin Irratiak.

### FLASH

#### Urtasun erremon-tista estreinakoz Iruritan

Nafarroako Foru Komunitatea IV Erremonte Txapelketako partida jokatu da larunbatean, irailak 19, Iruritako frontoian, 18:00etatik aitzinera. Final-laurdeneko lehia izanen da. Dena den, horren aitzinetik, bertze norgehiagoka bat ere jokatu da 30 tantora. Eguneko partida nagusia 40ra izanen da eta erremon-teko egungo jokalaririk hoberenatariko bi izar ikusgai izanen dira, Koto Ezkurra doneztebarr eta Miguel Mari Urrutia saldiastarra. Bertetik, Sanfermin bezperan debutatu zuen Gorka Urtasun iruritarra herriarren aitzinean eta etxe ondoan plazaratuko da. Egun berezia eta hunkigarria izanen da.

#### Elizondoko Abesbatza Ttiki sortu da

Gaztetxoek ere kanturako aukera izan dezaten, Elizondoko Abesbatza Ttiki sortu du helduen taldeak. Uda aitzinetik egindako deialdiak erantzun ona izan zuen, eta dagoeneko 30 haur baino gehiagok eman dute izena. Ikasturte berriarekin, gaztetxoek taldea ere lanean hasiko da, eta entseguen ortzegunean, hilak 17, hasitekoak dira. Ortzegunero 17:30ean bilduko dira Arizkunenean.



ttipi-ttapa fundazioak  
zure laguntza behar du  
Proiektu zenbakia: 15.996

DAGOENKO  
LAGUNEK **631**  
egin dute gure alde  
ESKERRIK ASKO

OSPAKIZUNA → BESTA AMAIURREN

## Amaiurren errebestak dituzte ortziralean eta larunbatean

### Larunbatean zikiro jatea eginen da

#### Maite OTEIZA

Amabirjinak akitu zirela ez da hilabetea pasatu, baina Amaiurren besta giroan segitzeko asmotan dira. Hala, ortziral eta larunbat honetarako, irailak 18 eta 19, adin eta gustu guzietako jendearentzako errebestak antolatuta dituzte.

#### ORTZIRALA, HILAK 18

- 17:00etan: Kulki huarrentzako ikuskizuna, Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.
- 18:00etan: futbol-partida: ezkonduak ezkongabeen kontra.
- 21:00etan: herri afaria Elkartean.
- 23:30ean kontzertuak ostatuan: POTTOKA & JOSU ZABALA BAND (fussion).
- Ondotik giroak ostatuan segituko du.

#### LARUNBATA, HILAK 19

- 14:00etan zikiro jatea Joxe Angelek alaituta.
- 20:00etan Muxikoak eta Mutildantzak.
- 21:30ean odolki eta zingar jatea.
- Ondotik euskal kantu zaharrak.
- 00:00etan gaupasa JALISKO BANDekin.



ARGAZKIAK: VALENTIN BASURTO

#### Maratoia Baztango 15 herrietan barna

Sasoian egon behar du batek Baztango 15 herriak egun batean oinez edo lasterka zeharkatzeko! Bai horixe! Bada berriki egin duenik bada: Aitor Kortaberrria eibartarrak abuztuaren 29an Baztango 15 herriak elkartu zituen, eta Amaiurreko monolitoan akitu zuen itzulia. Almandozen abiatu eta Berroeta, Aniz, Ziga, Oronoz-Mugairi, Arraioz, Lekaroz, Iurita, Gartzain, Elizondo, Elbete, Arizkun, Erratzu eta Azpilkuetan barna pasatu ondotik, Amaiurren akitu zuen ibilbidea. 42 kilometro inguruko bidea egin zuen, eta denborak aunitz inporta ez badu ere, lau orduren azpitik egin zuen itzulia: 3 ordu eta 52 minutuz.

#### 400 litro gasolio Baztan ibaira isuriak

Zoritxarreko edo us-tekabeko istripu batean, 400 litro gasolio isuri dira Baztan ibaiara, Elizondotik pasatzera koan. Kamioi bat Santiago Karrikatik zihoala, ur zulo bateko estalkia edo tapa jo eta gasoil biltegia hautsi zuen, eta bertan zuen gasolio guzira errekara isuri zuen, Arizkunenea gibeleko aldetik kanporatuz.

Ezbeharrak joan den abuztuaren 29an gertatu zen, goizean 9:00 baino lehen. Foru Polizia, Oronoz-Mugairiko suhiltzaileak, Ingurumen teknikariak eta Ecolruñako langileak istripua gertatu zen tokira hurbildu ziren, eta isurketak eragin zezakeen kaltea ahalik eta tikienez izateko euspenbarrerak paratu zituzten.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA  
Errekan barrerak jarri zituzte kalteak murrizteko



#### PERTSONAIA

Lander SANTAMARIA

### Garaioaren kargua hartzeko proposatua

Miguel Angel Garaioa NaBaiko zinegotziaren heriotza dela-eta, bere kargua betetzeko zinegotzi berria proposatu du NaBaiko: Lander Santamaria. Zerrenda zeuden Irene Uhalde, Martina Zelaieta, Santiago Ibargarai, Emilia Azkarrate eta Fco Jose Oartzabalek karguari muzin egin zioten eta taldeak Landerri proposatu zion kargua. Hauteskunde-Batzordeak onartu beharko du proposamena.

**Eskisaroi**  
RESTORANTE

Jaime Urrutia  
Tfn: 948 580 013  
ELIZONDO

**Bierresenea**  
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Burriztezu auzoa · Tfn: 948 582 043  
ORONÓZ · MUGAIRI

**BURKAITZEA**  
· ostatu · erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km  
948 599 280 · URDAZUBI

**SOULE**

hileta artea  
Tfn: 948 471 444  
Mux: 929 874 583  
ARIZKUN

## GIZARTEA

GIZARTEA → ARTZAINEN OSPAKIZUNAK

# Ameriketara artzain joandakoen besta egingen da igandean Auritzen

‘Ibañetako artzain irrintzia’ lelopean egingen da ospakizuna

## TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez, ‘artzain amerikanoen’ omenez, besta egingen da igande honetan, irailak 20, Auritzen. *Ibañetako artzain irrintzia* izenarekin antolatu dute aurtengo elkarretaratzea, eta 500 artzain eta senitarteko espero dituzte antolatzaileek. Auritzeko Udalak antolatu du ospakizuna, bertzeak bertze, Udabilde, Artzain Mundua eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

## EGITARAUA

- 10:00: harrera.
- 10:30 meza, Orreaga eta Aurizberriko abesbatzekin.
- 11:30: Luzaideko danztariak eta bertsolariak.
- 12:30: antzerkia.
- 13:30: bazkaria, musika eta zozketak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko artzainen besta Elizondon egin zen, eta duela 3 urte Lesakan.

- Kultur Etxean argazki erakusketa bat izanen da ikusgai.

Aipatu, bazkarirako txartelak hartzeko epea irailaren 11n akitu zela.

## 2006AN LEHEN ALDIZ

2006an hasi ziren egun hau antolatzen Nafarroan, eta Lesaka aukeratu zuten horretarako. 2007an Alduden egin zen eta iaz Elizondon. Aurtengoan, bere garaian Ameriketara jo zuten pirinioe-

tako artzainak gogoratu dituzte, eta Auritzen egingo dute hitzordua.

## DATUA

# 500

## LAGUN

espero dituzte antolatzaileek Auritzen, horietatik aunitz artzain izandakoak eta euren senitartekoak

Ohi bezala, hildakoa izanen dira gogoan, eta bereziki, Jesus Golderaz Doneztebe, Legasa, Elgorriaga eta Nafarroako apezpe izandakoa, hasieratik ekimen honen bultzatzaile izan zena. Horrez gain, artzain joandakoen senitartekoei ere toki berezia eskainiko zaie, batez ere emakumezkoiei, eta horietatik egin da *Nevadara joan nintzen emakumeak bakarrik utzita* antzerkia.

## LANA

Udan ere goiti egin du langabeziak eskualdean

## TTIPI-TTAPA

Uda garaia, sasoi lanpostuak direla eta, langabezia jausten den tenorea bada ere, aurtengoan ez da halakorik gertatu eskualdean. Uztailean 23 lagunetan goiti egin zuen langabeziak eta abuztuan, bertze 20 lagunek eman zuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan. 940 ziren guzira abuztu hondarrean apuntatutakoak. Nafarroa osoko datuak kontuan hartuz langabezia jautsi egin da eta Doneztebekoa izan da goiti egin duen bulego bakanetakoa. Hego Euskal Herrian ere igo egin da langabeen kopurua. Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez 325 kontratu egin ziren abuztuan, eta horietatik 25 bertzerik ez ziren izan mugagabeak. Adina eta sexuari dagokionez, guztietan somatu da langabeziaren igoera.

Okindegia	Jatetxea
<b>Uxoa</b>	
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan) Especialitatea parrillan erretako jakietan Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxoa!	Ordoki Industrialdea Tfn: 948 453 403 31713 ARIZKUN

<b>MONTXO</b> OSTATUA
Dantzarineatik 2 km-tara
<b>TABAKO-DENDA</b> <b>ANZAN-BORDA · VRDAZVBI</b> Egunero irakia 10:30etik 02:30era

# URDAZUBI/ZUGARRAMURDI

HEZKUNTZA → 2009/2010 IKASTURTEA

## Hiru urteko borts neska-mutikok hasi dute ikasturte berria

Xuban, Eneko, Garikoitz, Miren eta Naiara dira hasiberriak

### Koro eta Margari

Finitu zaizkie oporrak neska-mutikoei, eta bertze ikastetxeetan bezala, Urdazubin eta Zugarramurdin ere ekin diote ikasturte berriari. Guztira 40-50 ikasle hasi dira eta horietatik borts berriak dira. Xuban, Garikoitz, Eneko, Naiara eta Miren dira hasiberriak, hiru urte dituzte eta aurtuen joan dira lehenbiziko eskolara.

### Antzerki Taldea Kataluniara

Bertze irteera bat egin du Zugarramurdiko Antzerki Taldeak. Aldi hontan, Erronkariko Bidankoze herrian egon da. Bidankozen sorginaren jautsiera ospatzen da, eta horretan parte hartzerako gonbidatu zuten Antzerki Taldea.

Abuztuaren 25ean aritu ziren, izigarri inguru

ederrean: gauerdian, zerrua izar-izartua eta su haundi baten inguruan. Arras kontent itzuli ziren, beren ustez antzezlan pulita eskainita. Eta ez da hau azkena izanen, urriaren 31n Katalunia alderagaki baitira, San Felu Sasserra herrira.

### Obrak Zugarramurdiko kontsultan

Obretan ari dira Zuga-

ramurdiko medikuaren kontsultan. Orain arte jendeak aunitz esperatu behar izaten zuen mediku edo erizainarekin egoteko, biek toki berean baitzuten kontsulta. Orain, obra hauekin, erizainak kontsulta propioa izanen du, eta horrela xauliago gainen da jendeari atenditzeko denbora. Aldi berean, komun bat ere egingen da.

Lan hauek urrirako finituak izatea espero da,

eta bitartean, Zugarramurdikoek Urdazubiko kontsultategira gan behar harko dute.

### Dirulaguntza Urdazubin

Nafarroako Mendia Helmuga izeneko kalitate-planaren barrenean laguntza jaso duten proiektuen artean, Urdazubiko leizeetan bisitariak hartu, informatu eta artatzeko espazio berriak

77.874,04 euro hartuko ditu eta Ikaburua leizean sonozazio-lanakegitea, turismo-gunearen babes indartzea eta garapen iraunkorra eta energia-aurrezkiak sustatzeko proiektuak, berriz, 62.755,53 euro. Bi obrak Urdazubiko Udalak eginak dira.

### Kenpo Kai ikastaroa Zugarramurdin

Kenpo Kai taldekoak goiztiarrak dira eta irail hasieran hasi ziren klaseak hartzen. Gan den urtean bezala, Leorlasko eskolan ematen dira ortziral gauetan. Haurrak larunbat goizetan elkartuko dira, baina oraindik taldea osatu gabe dago.

Lehenbiziko aste hauetan klaseak irekiak izanen dira, eta jendeak zein kirol mota den ikusi eta ezagutzeko aukera izanen du klaseetara joanez. Eta ondotik izena ematen ahal izanen da, hala nahi izanez gero. Edozein informaziorako telefono huntara deitu behar da: 656 759566.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

### Aker eta Mari Etxalarren

Herriko ziganteak ere, Aker eta Mari, bidaiatzen hasi dira: gan den abuztuaren Etxalarren egon ziren, han antolatu zen erraldoien topaketan.

**ANZABAL**  
AGENTZIA



- **Zurich Asegurak**  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bitzitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**  
Errenta Deklarazioa, BEZA...
- **Inmobiliaria**  
Baserri, borts, preu, etab... salmenta eta alokaria
- **Gestoria**  
Bilgailuen transferentziak, gidaizako kanpainen berritzea eta edozein geako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580 804  
anzabal@anzabal.com



**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostataua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karkita  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

# SENPERE

KULTURA → ERAKUSKETA BEREZIA

## Arte garaikidearen erakustoki bihurtu da Karrika Nagusia



**HERIOTZA**

Maite LAMISCARRE

Zer errana sortu du *Berinak* festibalak

**Franck DOLOSOR**

Biziki gustokoa ala arras kontrakoa. Senper-tar bihirik ez da silik egon *Berinak* festibala denboran, eta hori marka txarra ote da? Zer erran haundia eman du festibal hunek. Sortzaile ausartak Anne Marie Bologna, sortzez Jeannou, eta Iñaki Viquendi senper-tarrak dira. Biek Arte Ederrak ikasi dituzte eta festibal hunekin, artea baserri gunerate ekarri nahi izan dute. Lapurdiko arkitektura eta arte garaikidea nahastea bururatu zaie, arte garaikidea lantzen duten 14 artista gonbidatuz. Obrak asmatu eta erakutsi dituzte saltegi-tako berinetan, Pereuil okindegian, konparazione, euskal diasporako lagunak.

**Frantxoa Garat artzain berria**

Erroman, Ezpeletan eta



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Pereuil okindegian itxura hau hartu du festibalean.

Donibane Garazin egon ondoan, Frantxoa Garat 65 urteko zelaitarra –Hazparneko auzoa–, Senpererat heldu da buruila hastapenean. Ongi etorri.

**'Pilotari' erakusgunea arrakastatsua**

Turisma bulegoan, uztailaz geroz usaian baino mugimendu gehiago bada, Pilotaren Etxeak ateak ideki dituelakoz.

Pilotaren joko desberdina ezagutzeaz gain, zombait herritarren lekukotasunak ezagutu ditezke: Ganix Halsouet Donamartiakoaren gutun bat pilotaz, baita Jean Ithourria, Jakes Casaubon, Maritxu Bereau eta Marie Christine Mendionderen oroitzenak ere. Lapurdi aldeko hautetsi gorenek parte hartu dute inaugurazio ekitaldian. Egun horietan, preseski, Gantxiki trinketan partida ainitz joka-

tu da Europako kopa ospatu baita.

**Akerretako errota ezagutzeko aukera**

Aurtengo ondare egunak buruilaren 19 eta 20an ospatuko dira eta aldi huntan ere bere atekak idekiko diozka publikoari Eliza ondoan den plazako errota. Gainerat, 25a arte, Lauburu elkartearen erakusketa bitartzen ahalko da errota. Gaia: *sorginkeria Lapurdi aldean*.

Zeruan izar eder bat gehiago piztu da

Ibarrun Etxenikako Maiteren heriotzak tristezia haundia sortu du herrian. Maite, biziki ezagunaren, urteetan lan haundia egin baitu parrokiaren eta herriarren alde, zombait urtez Herriko Etxeko kontseilari izanez. Zinez bihotz onekoa baitzen, bere seme-alabak hezteaz gain, herrian ongi ezagutua den neska bat ere adoptatu zuen senarrarekin. Denei gure dolumin zintzoenak. Senpere, eta beraz Maite, ongi ezagutu duten lau apezek zuzendu dituzte ibarrundarraren ehorzketak. Hitz hunkigarriak entzun ziren azken agurrean. Azken urteetan, pena haundia jasan zuen ama galdu zuelarik, batetik, eta bertetik, 2007ko maiatzeko uholdeek kalte haundiak sortu zituztelarik bere sortetxean apailatu zituen udako apartamentuetan. Maitasun haundiz apaindu zuen Ibarrungo etxea eta dena xehatua ikustek min haundia sortu zion. Beti aitzinera egiten entseiatu da baina azkenean, barakatzen ez duen gaitz batek eraman du buruila hastapenean. Ez adiorik Maite!





KULTURA → ANTZERKIA

# 'Herioa eta Dontzeila' antzezlan antolatu du Ikastolak urriaren 2rako

Lur Berri gelan izanen da 20:30ean


## Xan HARRIAGUE

Ospe handiko antzezlan ikusten ahaliko da urriaren 2an Lur Berri gelan: Itziar Ituño, Ramon Agirre eta Asier Sota aktore famatuek *Herioa eta Dontzeila* (neskamea) izeneko obra eskainiko dute 20:30etik aitzinera. Oraingo huntan Ikastolak goi mailako antzerkia antolatu du.

Ariel Dorfman idazle txiletarrak idatzi zuen eleberrian oinarrituz, Roman Polanskik 1994an *Herioa eta Dontzeila* filmea egin zuen. Geroztik 46 hizkuntzetara itzuli da. Fito Rodriguezek idatzi du euskarazko bertsioa.

Schuberten *Herioa eta Dontzeila* musika entzutean, Paulina (Itziar Ituño) eritzen da, torturapean pasaturiko sufrikarioa gogora etortzen zaio.

Senarra, Gerardo (Asier Sota), giza-eskubideen alde nabarmendu den abokatua du. Gobernuak diktadura garaiko krimenak ikeretzeko batzordearen buru izendatu berri du. Etxerako bidean, Gerardo autoa panan gelditu da. Eskerrak ezezagun batek, Roberto Miranda doktoreak (Ramon Agirrek), bide bazterrean ikusi eta bere autoan etxera eramateko mesedea egin dion. Baina etxera arribatzean, Paulina ohartzen da Miranda torturatu zutenetako bat izan zela. Hala uste du, behintzat.



ARGAZKIA: MARITXU ARBURUA

## Margo erakusketa buruilaren 19tik urriaren 4ra

Larrungo koloreak margo erakusketa antolatu du buruilaren 19tik urriaren 4ra. 25 bat artisten obrak ikusgai izanen dira Lur Berri gelan, arratsalde guziz 15:00etatik 19:00etara, baita larunbat eta igande goizez 10:00etatik 12:00etara ere. Obrak erakutsiko dituzten Sarako margolariak hauexek dira: Monique Bedecarrax, Chelo Guth, Michèle Lahourcade, Augusta Lassegue, Katixa Lasserre, Andy Le Sauce, Eliane Lyet, Monique Maumy, Gisèle Pirdzun, Pierre Ponnou, Claude-Marie Repesse, Maruka Urtizberea, Marie Neige Vielcazals eta Maritxu Arburua.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

## EZKONTZAK

**Jon Mariezkurrena Salaberri** eta **Izaskun Maiz Leiza**, Oronoz-Mugairikoa eta Arantzakoa, irailaren 5ean Arantzana.

**Oskar Altxu Agesta** eta **Diana Martin Castrillejo**, Iturengoa eta Doneztebekoa, irailaren 5ean Iturenen.

**Jabi Gutierrez Amores** eta **Axun Isitilart Mitxelena**, Oviedokoa eta Arizkungoa, irailaren 12an Arizkunen.

**Bastien Garat** eta **Pamela Rodriguez**, irailaren 5ean Saran.

**Frederic Bordenave** eta **Aurelie Dubosse**, abuztuaren 29an Saran.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Andoni Apezetxea Almandoz**, Arantzakoa, abuztuaren 26an.

**Libe Tapia Mutuberria**, Lesakakoa, abuztuaren 29an.

**Oier Gajate Olaetxea**, Lesakakoa, abuztuaren 31n.

**Eñaut Arburua Portu**, Lesakakoa, irailaren 8an.

**Nahia Baraibar Dominguez**, Leitza-koa, abuztuaren 25ean.

**Xabier Gorria Elizondo**, Sunbillakoa, abuztuaren 26an.

**Alain Bazterrika Obregozo**, Sunbillakoa, irailaren 3an.

**Luken Ansalas Maiz**, Etxalarkoa, irailaren 7an.

**Nathan Lacaze Collin**, Sarakoa, abuztuaren 31n.

**Peio Etxarte**, Sarakoa, abuztuaren 27an.

**Oihan Peio Pery**, Sarakoa, abuztuaren 31n.

**Margot Mondragon Fagalde**, Sarakoa, irailaren 2an

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Jose Luis Karrikaburu Zaldúa**, Nartekoa, abuztuaren 31n, 57 urte.

**Flora Elano Taco Toaquis**, Elizondon, abuztuaren 29an, 37 urte.

**Cascione Nicola**, Leitza, irailaren 2an, 72 urte.

**Ofelia Aldabe Asan**, Lesakakoa, irailaren 2an, 93 urte.

**Josefa Uitz Madariaga**, Igantzikoa, irailaren 4an, 87 urte.

**Jean Martin Perugorria**, Sarakoa, irailaren 8an.

**Pierre Errandonea**, Sarakoa, abuztuaren 28an.



### Raimundo PEREZ IRIARTE

Beran, 2007ko irailaren 16an  
II. URTEURRENA

*Umorez eta alaitsu  
egoten ginen elkarrekin,  
eta oroitzapen ahaztezin horiek  
beti geldituko dira gurekin.*

ZURE FAMILIA



### Koro EZKURRA ALSUA

*Gure artean kantu ta dantza  
zoriontsu zembiltzela  
gaitz gaixto batek eraman zaitu,  
hauxe kontraste krudela!  
Entsaio, luntx ta kontzertuetan,  
oraintxe arte bezela  
beti gurekin egongo zara  
zauden lekuan zaudela.*

UMORE ONA ABESBATZA  
GOIZUETA

Rekordatorioak  
egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta  
testuarekin prestatua*

KULTURKARI

Andutzeta 12, Etxalar  
Tfnoa: 948 63 54 58

HERRI KIROLA → HERRIZ HERRI TXAPELKETA

## Basaburua eta Igantzi Nafarroako Herriz Herri Txapelketako txapeldun

Lehenbiziko konbinatuan Baztanera joan da txapela eta bigarreanean Igantziara

### TTIPI-TTAPA

Txapelketako jardunaldi guztiak jokatu ondotik, Baztango Basaburua eta Igantzi dira Na-

farroako Herriz Herri Txapelketako txapeldunak. Basaburuak lehen konbinatuan lortu du garapena eta Igantzik, berriz, bigarreanean. Berriozarren abuztuaren 29an jokatutako jardunaldian erabaki ziren txapelak.

Basaburua eta Igantzi taldeez gain, Beraiko Gure Txokoa eta Berriozar taldeek hartu dute parte aurten txapelketan.

PILOTA → FINALA URRIAREN 17AN OITZEN

## Abian da Gazteen Malerrekako Laxoa Txapelketa

Doneztebeko bi talde eta Oitzeko bat ari dira lehian

### TTIPI-TTAPA

Irailaren 5az geroztik, hiru talde Gazte Mailako Malerrekako Laxoa Txapelketan parte hartzen ari dira: **Doneztebe A**, **Doneztebe B** eta **Oitz**.

Irailaren 5ean **Oitz** eta **Doneztebe Bk** jokatu zuten aurrez aurre, eta hilaren 12an,

berriz, **Doneztebe Ak** eta **Oitzek**. Partidak larunbatetan jokatzen direnez, hurrengo hitzordua asteburu honetan dute, hilak 19. **Doneztebeko** bi taldeek jokatuko dute, 11:00etatik aitzinera.

Irailaren 26an txapelketako laugarren jardunaldia jokatuko dute **Doneztebe Bk** eta **Oitzek**, eta urriaren 3an bosgarrena, **Oitzek** eta **Doneztebe Ak**. Seigarren eta azken jardunaldia urriaren 10ean egingen da, **Doneztebe A**



ARGAZKIA: I. UGALDE

Basaburua ingudearekin lanean.

### LEHEN KONBINATUA

Lehen konbinatuan borts probatan aritu dira kirolariak: koxkor biltzen, zakuarekin, aizkorran, lasterka eta arpanean eta sailkapena honek gelditu da: Basaburua

txapeldun, Gure Txokoa bigarren, Berriozar hirugarren eta Igantzi laugarren.

### BIGARREN KONBINATUA

Bigarren konbinatuan lastoa botatzen, txinga

eramaten eta ingudea altxatzen aritu dira eta lau jardunaldietako puntuak batuta Igantzi atera da garaile, Gure Txokoa bigarren; Basaburua hirugarren eta Berriozar laugarren.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gazteak laxoan Arraiozko plazan.

eta **B** taldeek berriz elkarren kontra ari behar dute.

Jardunaldi guztiak bukatuta, ligan bi lehenbizikoetan gelditzen ari direnek jokatuko dute finala. Final handia urriaren 17an izanenda Oitzeko plazan.

### JOKALARIAK

Hauek dira hiru taldeetan ari diren jokalaria gaztetxoak, bakoitzean lau:

**Doneztebe A** taldean, Unai Sapuppo, Josu Inda, Joseba Grazeña eta Aurelio Bertiz ari dira.

**Doneztebe B** taldean, Xabier Ibarrola, Andoni San Martin, Unai Urroz eta Cristian Chivite ari dira.

**Oitzeko** taldean, azkenik, Andoni Saldias, Lander Mindegia, Laurendi Zelaieta eta Ibai Iribarren ari dira.

AIZKORA → AITZOL ATUTXAK ERE LEHEN MAILARAKO TXARTELA LORTU ZUEN

# Jon Rekondo leitzarra lehenengo aldiz Bigarren Mailako Euskadiko txapeldun

Azken zazpi urteotako laugarren denborarik onena egin du

Heldu den denboraldian Maila Nagusian ariko da

## TTIPI-TTAPA

Leitzan da aurtengo Bigarren Mailako Euskadiko aizkolarien txapela. Jon Rekondo 24 urteko gaztearena da. Irailaren 6an Zestoan (Gipuzkoa) jokatu zen finala, eta itxura ona emanez, minutu eta 16 segundoko aldea atera zion Aitzol Atutxa azpitxapeldunari. Lan

txukuna eginda, Rekondo eta Atutxa Euskadiko Maila Nagusian ariko dira hurrengo denboraldian.


## SEI AIZKOLARI AURREZ AURRE

Rekondo eta Atutxa-rekin (Dima, Bizkaia) batera, bertze lau aizkolarari hauek aritu ziren lehian II. Mailako finalean: Manuel Kañamares (Arostegi, Nafarroa), Fausto Mugertza (Mutriku, Gipuzkoa), Joxemari Telletxea (Oiartzun, Gipuzkoa) eta Joxe Ugarteburu (Ezkio-Itsaso, Gipuzkoa). Seina enbor ebaki behar izan zituzten: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko, Maila Nagusiko finalean egiten denaren erdia, hain zuzen.

Lanak 21:15ean akitu zituen Rekondok, 22:31n Atutxak, eta 22:33an hirugarren sailkatu zen Joxe Ugarteburuk. Sailkapenean, Mugertza izan zen laugarren, eta Joxemari Telletxea eta Manuel Kañamares bosgarren eta seiagarren, hurrenez hurren.

## REKONDAREN IBILBIDEA

Jon Rekondo txapeldunordea izan zen 2003ko Gazte Mailako Txapelketan, eta geroztik, III. Mailatik II. Mailara igo, eta joan den urtean jokatu zuen lehenbiziko aldiz II. Mailako finala. Bosgarren sailkatu zen orduan. 2006 eta 2007ko kanporaketetan, berriz, zortzigarren eta bederatzigarren postuan gelditu zen.



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Jon Rekondo txapela eta trofeoa eskuan dituela.

HERRI KIROLA → SEIGARREN TXAPELA BERA KOARENTZAT

# Fernando Etxegaraik irabazi du Euskadiko Txokor-Biltze Txapelketa

Euskadiko bere seiagarren txapela jantzi du beratarrak

## TTIPI-TTAPA

Txokor biltzen ere bikain moldatzen da Fernando Etxegarai beratarrak. Ez du parekorik azken urteotan. Izan ere, aurten ere beretzat izan da Euskadiko Txokor-

Biltze Txapelketa. Irailaren 6an jokatu zen finala Leitzan, eta Etxegaraik 11 segundoko aldea atera zion Eneko Garmendia txapeldunordeari, eta horrekin, bere seiagarren txapela jantzi zuen. Hala ere, joan den urtean egindako marka ez du hobetu, Leitzako saioan, segundo bat gehiago behar izan baitzuen lanak amaitzeko.

Parte hartu zuten artean, eskualdeko biltze kirolari batek ere parte hartu zuen: Andoni Lasaga etxalartarrak, hain zuzen. Lasaga laugarren izan zen sailkapen nagusian.

Gainerakoan, honela gelditu zen sailkapena: Fernando Etxegarai txapeldun (06:19); Eneko Garmendia (Baliarrain, Gipuzkoa) bigarren (06:30); Alfonso Al-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Fernando Etxegarai.

varez de Eulate (Araba) hirugarren (06:38); Andoni Lasaga laugarren (06:53); Jon Larrañaga

(Mendaro, Gipuzkoa) bosgarren (06:59) eta Alberto Ibañez (Araba) seiagarren (07:16).

**HERRI KIROLA** → ZIGAKO MARTIN ZENOZ BIGARREN IZAN ZEN

# Miguel Mari Sukuntzak irabazi du Nafarroako Txinga-Eramate Txapelketa

laz lortutako emaitza hobetu du Leitzako kirolariak

## TTIPI-TTAPA

Berez, Iruñeko Sanferminetan jokatzekoa zen Nafarroako Txinga-Eramate Txapelketa, baina parte-hartzaile nahikorik ez –hiru behar dira guttienez–, eta bertan behera gelditu zen. Halere, berriki egin ahal izan da: irailaren 6an Leitzan.

Joan den urtean bezala, Leitzan gelditu zen txapela: Miguel Angel



Miguel Mari Sukuntza leitzarra.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sukuntzak 19 plaza, plaza erdia eta 4,60 metro

egin zituen. Bigarren eta hirugarren sailkatuei al

de nabarmena aterazien leitzarrak.

laz ere bera izan zen txapelduna, baina orduan 17 plaza eta 1,44 metro egin zituen.

Bigarren postua ere eskualdean gelditu zen: Zigako Martin Zenoztzat izan zen. Honek 8 plaza, plaza laurdena eta 6,08 metro egin zituen. Berriozarko Imanol Martin gelditu zen hirugarren, 7 plaza eta plaza erdia egin ondotik.

50 kiloko txingak esku banatan hartuta, ahalik eta plaza gehien egin behar izan zituzten kirolariek. Aipatu, plaza bakoitzak 28 metro dituela.

**HERRI KIROLA** → EUSKADIKO ARPANA TXAPELKETA

# Euskadiko Arpana Txapelketako finala urriaren 3an jokatu da Berriozarren

Bertiz-Urrutia eta Lasaga-Galarregi bikoteak han izanen dira

## TTIPI-TTAPA

Gizonezkoen Euskal Herriko Txapelketak aitzinera segitzen du. Dagoeneko kanporaketak jokatuak dira eta horren arabera, hauek izanen dira urriaren 3an Berriozarren jokatu den maila

nagusiko finalerako sailkatuak: Igor eta Aitor Esnaola (Gipuzkoa), Iñaki eta Josetxo Barberena (Nafarroa); **Sunbillako** Mikel Bertiz eta **Arraiozko** Xabier Urrutia; Jon Intxaurbe eta Jabi Olibares (Bizkaia), **Berako** Igor Lasaga eta **Etxalarko** Xabier Galarregi eta Oier Aizkorbe eta Jose Luis Cano (Nafarroa).

## EMAKUMEZKOAK

Nafarroako Emakumezkoen Arpana Txapelketak eman du be-



Igor Lasaga eta Jabier Galarregi arpanean.

rea. Abuztuaren 30ean jokatu zen Arazurin, eta hiru bikote lehiatu ziren: Lezaungo Itziar Nuñez eta Ana Lopez; **Etxalarko** Izaskun Ariztegi eta Hondarribiko Nerea Izuzkiza eta **Narbarte**ko Miren Arretxea eta **Berroetako** Nekane Migeltorena.

Etzanda jarritako 45 ontzako enborrari hamar ebaki egin behar izan zituzten, eta txapela Lezaunera joan zen: Nuñez eta Lopezentzat izan zen, 8:10:80ko denbora egin ez. Izaskun Ariztegi eta Nerea Izuzkiza bigarren gelditu ziren, 8:39:43ko denbora egin ondotik eta Miren Arretxea eta Nekane Migeltorena.

Migeltorena hirugarren. Hauek 9:26:53ko denbora egin zuten.

Bertzalde, aipatu, Euskal Herriko emakumezkoen arpana txapelketan, Miren Arretxea eta Nekane Migeltorena bosgarren izan zirela eta Izaskun Ariztegi eta Nerea Izuzkiza seigarren.

ARGAZKIA: I. UGALDE

# irailak 17 - urriak 1

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

## Bestak



IGANTZI | 2009.09.27

### XXX. Artzain Zakur Lehiaketa Meakaundin

Igantziako Artzain Zakur lehiaketak hogeita hamargarren edizioa beteko du. Sanmigelen barrenean, eta ez aitzineko igandean, izanen da aurten.

## Ospakizunak



ETXALAR | 2009.09.27

### Euskal Herriko narratzaileen besta

Euskal Herriko narratzaileek Etxalarren dute hitzordua. Harreraren ondotik, eguerdi partean kontu kontari ibiliko dira herrian eta gero bazkaria izanen dute.

## Mendi Bizikleta



LESACA | 2009.09.20

### II. Mendi Bizikleta Ibilaldia antolatu du Beti Gaztek

Bi ibilbide izanen dira aukeran, 42 eta 25 kilometrokoak. Izen ematea 8:30etik 9:30era egin behar da (10 euro Beti Gazteko bazkideek, 12 gainerakoek).

du Gure Txokoa elkar-teak Dantzari Ttiki Egunaren hamabosgarren edizioa antolatu du. Xehetasunak 10. orrian.

## Bestak

IGANTZI

### San Migel bestak

**Irailaren 25etik 30era.** Xehetasunak 11. orrian.

URROTZ

### San Migel bestak

**Irailaren 25etik 29ra.** Xehetasunak 23. or.

ANIZ

### Arrosarioko

### Amabirjinaren bestak

**Urriaren 3tik 5era.** Xehetasunak 30. or.

ETXALAR

### Urritzokietako bestak

**Irailaren 20a.** Xehetasunak 17. orrian.

AMAIUR

### Besta ttikiak

**Irailaren 18 eta 19an.** Xehetasunak 33. or.

DONEZTEBE

### Besta ttikiak

**Irailaren 18tik 20ra.** Xehetasunak 21. orrian.

## Ospakizunak

BERA

### V. Kirol Eguna

**Irailaren 19an** goizez hainbat kirol ekitaldi, bideo emanaldia eta bazkaria. Arratsaldean Patxi Vilaren bideo emanaldia eta atletismo proba konbinatua.

ITUREN

### Joaldunen eguna

**Irailaren 19an** Joaldunen Eguna. Egun osoan hainbat ekitaldi.

## Erakusketak

URDAZUBI

### Gaur egungo pintura

**Urte osoan,** gaur egungo pinturari buruzko erakusketa. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monasterioako Klaustroan.

AMAIUR

### «Molimientos» argazki erakusketa

**Irailaren 21era bitarte,** Virginia Gil Cousoren *Molimientos (eta bertze ipuin batzuk)* argazki erakusketa ikusgai errotan.

ELIZONDO

### Kubako pintura garaikidea

**Irailaren 4tik 26ra,** Arizkunenean, Arte eta Kultura programa.

## Kontzertuak

DONEZTEBE

### No Signal taldea besta ttikien barrenean

**Irailaren 18an** No Signal taldeak kontzertua eskainiko du, 23:30ean bertze talde batekin batera.

IGANTZI

### Amets Iluna eta Luz de Putas taldeak

**Irailaren 25ean** kontzertua eskainiko dute plazan 23:00etan.

IRURITA

### Rock kontzertua gazteen eskutik

**Irailaren 26an** kontzertua izanen da 23:00etan Damaso Zabala Gizarte Bilgunean. Des-kontrol, Zutik, Egurre eta Rata Kalva taldeak ariko dira. Sarrera: 6 euro.

## Antzerkiak

LESACA

### Ingumak taldea

**Irailaren 18an** *Non zaude CO2?* antzeslana 17:00etan komentuan, Mugikortasunaren Astearren barne.

## Hitzaldiak

LESACA

### Estresa eta depresioa hizpide

**Irailaren 17an** *Estresa eta depresioa, XXI.*

*mendeko etsaiak* solasaldia eskainiko du ANASAPS-Dizdirak, 18:00etan Antoiu 27, 2.

BERA

### Alkoholiko Anonimoak

**Irailaren 26an** Alkoholiko Anonimoak-en hitzaldia Jesusen Bihotza Ikastetxean, 20:00etan.

## Dantzak

BERA

### XV. Dantzari Ttiki Eguna

Irailaren 26an antolatu

## PROPOSAMENA

ITUREN

### Joaldunen Eguna irailaren 19an

Larunbat goizean plazan elkartu eta Ameztalderako joko dute joaldunen eta trikitilariek, auzoko baserrietara joare eta trikiti doinuak eramatea eta auzotarrekin solastera.

13:00etan plazan herri kirol erakustaldia egingen da eta ondotik bazkaria Herriko Etxeko Ganbaran. Ondotik dantzaldia izanen da Frantzisko akordeolariarekin.



ETXALAR

**Euskal Herriko narratzaileen besta**

**Irailaren 27an** Etxalaren bilduko dira Euskal Herriko ipuin kontalariak.

AURITZ

**Ameriketara artzain joandakoen besta**

**Irailaren 20an** bilduko dira Ameriketara ibilitako euskal artzainak, "Ibañetako artzain irrintzia" izenburupean. Xehetasunak 34. orrian.

SENPERE

**Ondare Egunak**

**Buruilaren 19 eta 20an** Akerretako errota ezagutzeko aukera eta Lauburu elkartearen "Sorginkeria Lapurdi aldean" erakusketa ikusgai.

GOIZUETA

**Euskal Jaia**

**Irailaren 20an.** Xehetasunak 26. orrian.

**Lehiaketak**

ELIZONDO

**XXII. Behi-azienda pirenaiakoaren lehiaketa-entkantea**

**Irailaren 26 eta 27an** Behi-azienda pirenaiakoaren lehiaketa-entkante nazionala egiten da Elizondon. Xehetasunak 32. orrian.

LEITZA

**Literatur lehiaketa antolatu du ALKEK**

**Urriaren 31** baino lehen aurkeztu behar dira narrazio eta ipuin lehiaketa eta bertso-paper lehiaketarako lanak.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**



Haragiaren gauak eta egunak

**JOAN MARI IRIGOIEN**

Elkar, 2009

Orain dela urte batzuk ekin zion Joan Mari Irigoienek proiektu luze eta mamitsu bati: "Orbetarrak" trilogiari. Horren lehen emaitza iaz kaleratu zen, 2008an: Bestea da mundua, Nazario Orbe eta Regina Aldasoro protagonistak ezagutarazi zizkigun eleberri mardula. Haren jarraipena eza gutu nahi, edo zuzenean familia honen bizikizunetan murgildu nahi duenarentzat, hona orain Haragiaren gauak eta egunak. Teofilo Maria, Damaso, Domingo, Maria Bibiana, Gabino eta Ada, horra Orbetarren etxeko semealabak, Nazario eta Reginarin askazia jarraitzaera datozenak: sinetsen zindo eta oinarri sendoenetan finkatutako sendia baina eraikuntzarik gotorrena ere kordoka daiteke, halako batean. Orbetarren sagako bigarren liburukian, protagonisten nortasun eta berezitasunak ezagutuko ditugu, bakoitzaren ametsak eta ekintzak, nahiak eta ezinak, eta, etxekoen gorabeheren bitartez, XX. mende hasieratik 36ko gerrara bitarteko gertakarien lekuko bihurtuko gara.

**Musika**



Hegazkadak dakar ekaitzak

**MALENKONIA**

GOR, 2009

Iñaki Goitia (bateria), Aitor Lamas (baxua), Andoni Correas (pianoa), Erik Zubiria (biolina), Iñigo Ugarte (gitarra) eta Roberto Ferreirok (gitarra eta ahotsa) osatzen dute Malenkonia, eta "Hegazkadak dakar ekaitza" beraien estudioko lehen lan luzea aurkeztera datorkigu pop-rock talde oñatiarra. Seikote gazte honen energia eta freskura guztia biltzen duten hamar kanta aurki ditzakegu emozioz beteriko lan hontan eta Hong Kong-go tximeleta baten hegazkadak New Yorken ekaitza sortu dezakeen bezala, "Hegazkadak dakar ekaitza" diskako hamar kanten entzulearengan zerbait berezia sortuko dute. Malenkonia aireratzeko prestatzen ari da... CDa 10 euroan salduko da, baina Internetetik doan jausteko aukera ere ematen du taldeak (www.malenkonkia.com), eta aitzinerago paypal donazioak egiteko aukera ere eskeiniko dute, nahi duenarentzat.

**Internet**



BERAKO ARGAZKI ETA AGIRI HISTORIKOAK

**BERAGUREHERRIA.COM**

Urtea beteko du urrian Berako Jose Antonio "Tono" eta Rosa Mary Errandoneak herriko argazki zaharrak, agiriak, prentsa errekorreak eta bertze jakingarri ugari sarean jartzeko bultzatutako web-orria. Ideia eta materiala anai-arrebena bada, www.beragureherria.com nahiz www.beranuestro-pueblo.com klikatuz sar daitekeen web-orriaren itxura eta eguneratzea Mikel Zubieta webmesterraren esku dago. Sarrera, Berriak, hainbat gaien inguruko Argazki galeria, mapa, bilatzailea eta harremanetarako sarbidea eskaintzen ditu. Errandoneatzen dioten bezala, "inork ez dezala bilatu gure herriko argazki artistikoak, helburua Berako orrialde dokumental bat osatzea izan baita, bere baserriak bordak, etxeak, jendea... akatsekin eta ongi egindako gauzeekin. Letra ttikiko historia, benetako Historia idazteko gu baino hobekiago prestatuta dauden bertze batzuk badaude eta".

**Nire aukera**



**Kontxi ZOZAI**

Leitzako euskaltegiko irakalea

**Bidaiatzea droga da niretzat baina orain abstinentzia sindromeaz nago**

Hogeita bortz urte bete ditu Kontxi Zozaiak irakasle lanean Leitzako euskaltegian eta mende laurden honetan asti librea bizitzeko modua erabat aldatu zaio: «gizartea bera izugarri aldatu da eta familia izateak ere baldintzatzen du». Kontxiren ustez, bere garaian «urrezko momentuak bizitu genituen, gizartearen esnatzea... Iraultza berri bat bizitu genuen eta izugarri aberatsa izan zen». Baloreen aldetik orain «hutsune orokorra» dagoela uste du, baina orduan bezala, «irakurtzea eta mendira ateratzea» gustatzen zaio Kontxiri, nahiz eta ezin nahi adina uztartu eguneroko lanean. Bidaiatzea ere «droga gogorra da» Kontxirentzat, baina orain «abstinentzia sindromeaz» dago. Brasil, Guatemala, Ekuador, Nepal, Txina, India, Pakistan, K2an Iñurategi anaiekin sukaldari ere izan zen... Euskal kulturarekin zerikusia duten ekintzetara joaten saiatzen da, «umeekin transmisio lana egiteko eta gustokoa dugulako».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**BERA.** Bortzirriak auzoan etxe adosatua salgai. Interesatek bakarrik deitu. ☎617 567047.

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, trastelekua eta ganbara. Berritua. ☎657 715243/657 799953.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra-  
rekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**BAZTAN.** Zaharberritzeko baserria salgai, lur saila eta baso eremuarekin. Ura eta argiarekin. 102.172€. 9.000 m<sup>2</sup>ko lur eremu eraikigarria (48.000€) eta borda (9.000€). ☎678 099422.

**LIZARRA INGURUA.** Landa-etxea salgai, 50 m<sup>2</sup>ko eta 20 m<sup>2</sup>ko ataria. Estreintzear. 700 m<sup>2</sup>ko lursail zelaiarekin. Urputzua eta ureztatzeko urarekin. Eguzki plakak eta inguru guztia hesitua. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 70.000 euro. ☎652 593360.

**ETXALAR.** Zaharberritzeko baserria salgai. Lur eremuarekin, ura eta argiarekin. ☎661 121540.

**DONEZTEBE.** 2 pisu, 2 eta 3 logelakoak, eta etxea egiteko lur eremua salgai. ☎607 978656.

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lurrekin. ☎943217817.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA  
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**DONEZTEBE**

Zazpigarutze plazan  
115 m<sup>2</sup>ko pisua salgai.  
3 logela, 2 bainugela  
eta trastelekua. Eguzki-  
tsua eta estreinalu gabea.

630 948271

**BERA**

MARTZAN DAGOEN  
ILSAPAINDEGI BAT  
ERRENTAN EMATEKO

675 716121

an pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, komuna, sukaldea eta 30 m<sup>2</sup>ko terraza. Igoailuarekin. Berogailu indibiduala. Ikasleentzat prestatua. ☎948 890793.

**LESAKA.** Zaharberritutako etxebizitzan bi duplex errentan emateko. Inguru onean eta bista politekin. ☎658 943702.

**BERA.** Pisua errentan emateko. Sukaldea, bainugela eta 2 logela. Mobleztua eta berogailuarekin. ☎626 774582.

**DONEZTEBE.** Pisua errentan emateko. ☎699 798207.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartu

**BERA.** Neska batek pisua errentan hartuko luke. ☎652 758187.

**ETXEBIZITZAK**  
konpartitu

**BERA.** Neska bat pisu bila dabil. Ttikia bada bereztat bakarrik eta haundia bada konpartitzeko. ☎652 758187.

**ELIZONDO.** Pertsona bat behar da pisua konpartitzeko. ☎610949168.

**DONOSTIA.** Neska ikasle bat nahi da pisua konpartitzeko. Unibertsitate 5-10 minutura dago. Hilabetean 186 euro. ☎678 309025.

**GARAJEAK / LOKALAK**  
salgai

**LESAKA.** 20 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albistur, 43. ☎659 609678.

**ELIZONDO.** 60 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Denda edo bulegorako prest. ☎675 433415.

**GARAJEAK / LOKALAK**  
erosi

**LESAKA.** 100-120 m<sup>2</sup>ko lokala erosi edo errentan hartuko nuke. ☎657 708866.

**LURRAK / ORUBEAK**  
salgai

**ITUREN.** 2.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai, leku eta prezio ona. ☎676 013 103.

**LURRAK / ORUBEAK**  
erosi

**IBARDIN edo DANTXARINEA.** Lur eremu eraikigarria erosi nuke. Eskura ordainduz. Diskretzioa. ☎678 099422.

**ZERBITZUAK**  
Zurginak

**ARANTZA**  
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu errekontuak konpromisarik gabe

Jose Manuel Zubizarain  
SALVADORA 140 010 114  
Gernika - ARANTZA

**LANA**  
eskaintzak

Trailerrarekin ibiltzeko gidaria behar da. Esperientziaduna. Ibilbide nazionalerako. ☎660 393436.

**LEITZA.** Kiroldegian aerobic eta pilateseko monitorea behar dira. ☎680 187853.

**BASERRIA**DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**

(abuztuaren 28tik irailaren 4ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 35,00 € (+1,00)

**Zerri gizona**  
1,170 € kilo. (-0,025)

**Zerramak:**  
0,460€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,83 (=)

**1.koa** 3,53 (=)

**2.koa** 3,83 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,93 (=)

**1.koa** 3,63 (=)

**2.koa** 2,93 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**

urruak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 2,85/2,95

Zaldi-behorrak: 1,55/1,75

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 7,80/8,60

8-10 kilokoak: 6,50/6,90



**BERA.** Ibardingo benta batean biltegi aritzeko mutil bat behar da. ☎948 630734.

**SARA.** Urtxola jatetxeko ostatuan asteburuetan lan egiteko norbait behar da. Esperientziaduna. ☎686 561525/(0033) 559542831.

**DONEZTEBE.** Bixen ostatuan asteburuetan sukaldean aritzeko langilea behar da. ☎948 450383.

**ELIZONDO.** Pertsona bat behar du gu haur batekin egoteko, astean bi egunez, denera 6 ordu. ☎646 331007.

**IBARDIN.** Beola Etxeko supermerkatuan lanaldi osoan aritzeko langilea behar da. ☎948 630709.

**IBARDIN.** Beola Etxeko jatetxean lan egiteko zerbitzaria behar da, egunean lau orduz. ☎948 630709.

**BAZTAN.** 20-35 urte bitarteko almazeneroa behar da, esperientziaduna. Bidali curriculumak: *almacenerobaztan@hotmail.com*.

**LANA eskariak**

**SUNBILLA-DONEZTEBE** inguruan. Neska eskaintzen da adinekoak zaindu edo etxeak garbitzeko. Esperientziarekin. ☎666 642231 (goizez).

**IRAKASKUNTZA eskaintza**

**URDAZUBI INGURUA.** Gaztelania eta frantseko klaseak emanen nitzuke. ☎948 393504.

**IRAKASKUNTZA eskariak**

**Euskara irakasle** partikularra behar da goizez klaseak emateko, astean 2-3 egunez. ☎647 712676.

**MOTORRA tailerrak**

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**GANIX**  
TAILERRA  
Ibilgailuen mekanika eta elektrizitate  
BERA FIAT zerbitzua  
Bartzelana, 7 • Tel: 948 630 667

**MOTORRA salerosketak**

**Mitsubishi Montero DID** salgai. 2005ekoa, egoera onean, ITV maiatzean pasatua. 30.000 km. ☎639 156105.

**Nissan Terrano II 2.7 TDI** salgai. 1997koa. Egoera ona. ☎629 126185.

**Suzuki Grand Vitara 2.0 TD** salgai. 2005ekoa, egoera onean, ITV maiatzean pasatua. 30.000 km. ☎639 156105.

**Gas-gas TXT 320** motorra salgai. NA-BB. ITVrekin. Egoera ona. 1.200€. ☎620 011246 (Juanmi).

**Peugeot 106 1.0 KID** salgai, merke. Hasiberrien tzako egokia. ITV maiatzean pasatua. Egoera ona. ☎637 812999.

**Suzuki Vitara JLX** gasolina salgai. ☎620 036553.

**Suzuki GSR 600** motorra salgai. 2007koa. 12.400 km. Paperetan 34 zaldira limitatuta, zentralita originala eta limitatzailearekin. Garajejan egondakoa eta egoera onean. ☎686 316397.



**Yamaha XT 350** motorra salgai. Matrikula: B-IG. ☎620 135721.

**Daf 480 kamioia** salgai, 98koa. Zisne-lepo erako


gabarra. 12,9 m.ko luzera. Hiab markako garabia, 14 m.ko luzera eta urte eta erdiko irrati kontrolarekin. ☎678 099422.

**Opel Corsa 1.700 turbo** diesela salgai. NA-AU. 1.200€. ☎667 766262.

**Onda TRX 450** quada salgai, 2007koa. Egoera onean. 3.500 euro. ☎610 509177.

**ANIMALIAK salerosketak**

Gaztain koloreko **zaldia**, mendian ongi egoten dena salgai. ☎609 411298/690 830292.



Limousine arrazako **zena** salgai. ☎666 433960.

Vietnamgo arrazako **zerrikumeak** salgai. ☎667 766262.

Basurde ehizerako **txakurrak** salgai. Arrazakak. ☎607 226738/943 642004.

Sei **ardi** saltzeko. ☎948 510498.

Bortz hilabeteko **zaldikoa** salgai. ☎948 634057.

**Pottoka** arrazako 7 urteko behorra salgai, pinttoa, bere muxalarekin eta ernari. ☎948 387063/661 771422.

**Astoa** salgai. 5 urtekoa, umearekin. Berriz ere arra hartua. Asto larria, kondizio onekoa. ☎669 664026.

**ANIMALIAK oparitu**

**Zakurkumea** oparitzeko. ☎679 892622.



**SANTESTEBAN Tailerrak**

THU PIC 2.0 DCI 110CV 19.000€ - 20.000 km  
 NISSAN 1.600 CC 110 CV 2004koa - 120.000 km  
 KIA SOUL 1.5 DCI 100CV 2008koa - 6.000 km

**ETA GAINERA**  
 Peugeot 307 1.110CV (2005ekoa) - 28.000 km  
 Ford Focus 1.8 TD (2002koa)  
 Kangoo Express 1.9 (2004-2003koa)  
 Citroen Saxo 1.5 D SX 5P  
 Renault Express 1.9 D  
 Citroen Xsara familiarra 1.9 TD 90 CV  
 Laguna 2.2 D  
 Megane Classic 1.9 D

DONEZTEBEKO RENAULT-en KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZAK

**MERKATU TTIKIA**

Aldizkaria + Internet + telebista **8€**

T. 948 635 458  
www.ttipi.net

**DENETARIK galdu aurkituak**

**BERA.** Etxeko giltza bat aurkitu da, Txakurtxulo eta kanposantu tartean. ☎670 605441.

**DONEZTEBE.** Urrezko plaka bat aurkitu da. J.G. inzialak jartzen ditu eta 1998-5-24an jaiotakoarena da. ☎948 635458.

**LESAKA.** Osasun Zentruaren inguruan urrezko eskumuturrekoa galdu da. Intza 2009.09.27 jartzen du. ☎661 432630.

**ARANTZA.** Arantza Rock gauean antiojoak eta mobila galdu dira. ☎943 522577.

**DENETARIK salerosketak**

Bigarren eskuko **ostalaritzako makineria eta altzariak** salgai. ☎948 451302.

Egoera onean dagoen **trikitixa** bat erosiko nuke. ☎607 407687.

**Luzerna eta belar idorra** salgai. ☎609 445842.

**Agria 9900 S** traktorea salgai. ☎686 077491.

Basurde ehizean erabiltzen den **emisorerzeptorea** salgai. Kenwood TH-K2E modelo. ☎652 757773.

4 ateko **hozkaile** mistoa herdoilgaitza salgai eta 3 su eta 3 planta dituen **sukalde industrial**a salgai. ☎943 622564.

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



**AIEKO eta OIER MUTUBERRIA** zubietarrek urtea eta 4 urte bete dituzte abuztuaren 7an eta irailaren 9an. Muxu haundi bana amaxo eta attatoren partetik.




**IONE eta NAHIA GANBOA ANCIZAR.** Abuztuaren 11n 2 urte eta irailaren 16an 5 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana Sunbilla eta Doneztebeko familien partetik. Aupa zuek!!



**AINHOA BALLARENA TELLETXEAK** irailaren 20an 5 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama eta berexiki Amaiairen partetik. Ongi pasa eguna!!



**AINHOA BALLARENA TELLETXEAK** irailaren 20an 5 urte beteko ditu. Zorionak Arraiozko eta Donamariako familiaren partetik. Muxu haundi bat!!



**MATEO LERTXUNDI FLOREZEK** 2 urte bete ditu irailaren 14an. Zorionak aita, ama, anai-arreba, lehengusu eta lehengusinarren partetik. Muxu haundi bat.



**KEMEN ANSALAS ARBURUA** etxalartarrak 4 urte bete ditu irailaren 12an. Zorionak parrandero!! Muxu haundi bat familiaren partetik.



Arantzako **AIORA ITURRIAK** irailaren 13an 5 urte bete ditu. Zorionak eta 5 muxu haundi haundi!!



**AIORA APEZTExEA ETXEBERRIA** goizuetarrak 5 urte beteko ditu irailaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat Xanet, atta eta amaren partetik.



**AINARA ARANDIAK** 4 urte bete ditu irailaren 15ean. Zorionak etxeko printzesari bere laugarren urtebetetzean. Muxu haundi bat familia guziaren eta berexiki anaia Aimarren partetik. Bota txanpaina!



Zorionak Itsasori irailaren 18an bere eguna delako. 17 urte izanik senti daiteke galako, orain aprobetxatzen dut eta hau erran behariko, bihotz bihotzetik maite zaitudala asko, elkarrekin pasa izanik bai irri eta bai malako, zuk zure eguna bizitu ta opari hau zuretzako! 17 muxu haundi Joartzosen partetik.



**IRAIA ETXARTE TELLETXEAK.** Zorionak irailaren 13an 4 urte bete dituzulako. Segi horren alaia izaten. Muxuak Aloñaren partetik.



**IRAIA ETXARTE TELLETXEAK.** Zorionak Realeko jokalaririk hoberenari, irailaren 13an 4 urte egin dituelako. Muxuak etxekoen partetik.



**ANDER eta EIDER GOIZUETA BARRIOLAK** 8 eta 4 urte beteko dituzte irailaren 23an eta 12an. Zorionak eta muxu haundi bana Lesakako familiaren partetik. Segi beti bezain zoriontsu.



Donamariako **XUBAN ERBITIK** irailaren 25ean 4 urte beteko ditu. Zorionak Bihotz eta Oinatz partetik.



Donamariako **BIHOTZ BALEZTENAK** irailaren 24an 3 urte beteko ditu. Zorionak Bihotz eta Bobuxen partetik.



Donamariako **OINATZ BALEZTENAK** abuztuaren 7an urtea bete zuen. Zorionak Bihotz, lbinka, Xuban eta Ugaitzen partetik.



Donamariako **IDOIA ARREGIK** abuztuaren 29an urte bat gehiagoren zama hartu zuen. Zorionak Donamariako apezariaren partetik.



Aresoko **ITOITZEK** urteak bete ditu irailaren 6an. Zorionak eta muxu asko amoña, Aresoko osabazibea eta lehengusu-lehengusiarren partetik.



**JON ETXEPETE-LEKU BURGETE** lesakarrak irailaren 17an 8 urte beteko ditu. Zorionak familiaren eta berexiki Josu eta Aneren partetik.



**ANDER eta EIDER GOIZUETA BARRIOLAK** 8 eta 4 urte beteko dituzte irailaren 23an eta 12an. Zorionak eta muxu haundi bana Leitzako familiaren partetik. Segi beti bezain zoriontsu.



Leitzako **INHAR ALTADILL LAZKANOK** irailaren 11n 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Sunbillako **JOSEFA APEZTEGIAK** urteak bete ditu irailaren 12an. Zorionak amatxi JOXEPAl Prestatu txokolate goxo denentzat!



**AIORA ITURRIAK** 5 urte bete ditu irailaren 13an. Zorionak eta muxu pila zure lehengusina Iradi eta Maialenen partetik.



Berako **OIER GOIENETXE MARI-TXALARREK** 2 urte beteko ditu irailaren 23an. Zorionak eta mila muxu haundi attatto, amatto eta lortzen partetik.



Sunbilla eta Berako **NEKANE eta SILVIAK** irailaren 17an eta 19an urteak beteko dituzte. Zorionak lagun partetik eta ongi pasa eguna. Muxuk!

# ZORIONDU

Internet bidez  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) *erraza da*

# t tipi txartela rekin beti irabazten da

DESKONTUAK - ZOZKETAK - ALDIZKARIA MUSUTRUK



t tipi txartela egiteko edo zozketetan  
parte hartzeko deitu **948 63 54 58**ra.  
Astehenetik ostiralera 09:00 - 18:00.

## ZOZKETAK

**CD-ROM**  
Aisia  
[www.urteintza.org](http://www.urteintza.org)

**KAMISETA + CDa**  
Bide ertzean  
[www.bideertzean.com](http://www.bideertzean.com)

**JANTZIA**  
Txapela buruan  
[www.txapelaburuan.com](http://www.txapelaburuan.com)

**KAMISETA 1**  
Nafarroa Oniez  
[www.nafarroaoniez.net](http://www.nafarroaoniez.net)

**2 KAMISETA**  
Oninart  
[www.oninart.com](http://www.oninart.com)

**ALTXORRAK & LAPURRAK  
JOKOA**  
Ikastolen Ekharria  
[www.ikastola.net](http://www.ikastola.net)

## SARIDUNAK

### t tipi txartela

- LIBURUAK (Ibaizabal argitaletxea)  
Aranbi Oiez (Zubietzi)
- HARRPIDETZA (Argia aldizkaria)  
Saioa Mixelena (Bera)
- KAMISETA (jonddo)  
Arikaitz Midegía (Aurtitz)
- Maria Dolores Barrio (Elizondo)
- KAMISETA (Nafarroa Oniez)  
Gurutz Pikabea (Arantz)
- Miguel Mari Igoien (Ezular)
- LIBURUAK (Erein argitaletxea)  
Marcelita Gimart (Elizondo)
- KAMISETAK (Txapela buruan)  
Irene Abaroa (Gurbilza)
- Gurutz Graziaena (Bera)

### t tipi saskia

- 2 SARRERA (Donostia Agorariuma)  
Karmela Pikabea (Elgomagui)

## t tipi saskia

Bidali SMSa **5767**ra TTPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA idatziz  
**JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE**

**5 kate**  
**2 SARRERA**  
LIBURU 1  
ASTIZ (Nafarroa)  
948 306 093

**CAMELOT PARK**  
TRINQUILU ALCAMPO + RUM  
943 826 276  
**2 SARRERA**

Zozketan parte hartzeko espazioak irailaren 23a baino lehen, irabazleak jakarri gabe. Teke atxikierak argitaratuko dira. Mugarren kateak 1.200€ 55:1 gabe. Zure datuak t tipi saskian fitxategi gordetako dira. Auzumartandik zurekin zuren paktuaren bati erantsita. Zuzenean edo deialdeko zerbitzu bidez deitu 948 63 54 58ra.

## DESKONTUAK

**FANTXIKE**

%10, 300tk gorako gutxien

**GOIKO**

%10 kopia digitaletan

**Intzuri**

%10 Delo deialdekoa

**IPARLA kirolak**

%8, 300tk gorako gutxien

**IPINGI**



%10, 300tk gorako gutxien



Neurrira egindako leihoak  
Diseinu eta modelo ezberdinak  
Banakako soluzioak  
Isolamendu termiko eta akustikoak  
Energia aurrezpenak

Ordoki industrialdea • ARIZKUN  
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423  
betikopvc@betikopvc.com  
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



**OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK**